

UZTARRIA



FELIX ARREGI

GAUTENAREKIN AZPEITIRA



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
tomo diuina

www.urrategiinteriorismo.com
Arregui 27 Arreze 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



ETORRI DENDARA,
EGIN 20 EUROKO
EROSKETA
ETA IRABAZI



Spotify
Premium
ZERBITZUA
DOAN 3 HILABETEZ!

UDA BEREZIA

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeke altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 • AZKOITIA • ☎ 943-85 21 10 • www.biyona.net



UZTARRIA 241

2021EKO ABUZTUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ALEX BERASATEGI



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Julene Frantzesena, *Gorrotorearen biktimak.*
- 6 **Hementxe bertan** Lala Sow senegaldarra.
- 8 **Nire leihotik** Alaitz Ruiz, *Ez daukan hori...*
- 10 **Iritziak** Luis Gurrutxaga, *Manuel Atejada Zugabeitia*; Txetxu Urbieta, *Gutxi.*
- 14 **Elkarrizketa** Pello Elorza Euskara Patronatuko langile ohia.
- 20 **Elkarrizketa** Felix Arregi Gautenaren etxebizitza zerbitzuaren arduraduna.
- 27 **Lehiaketa**
- 28 **Erretratua** Naroa Aranbarri bizikleta jaitsieretan aritzen den herritarra.
- 32 **Plazan bazan**
- 34 **Iritzi grafikoa** Itziar Aranguren.
- 35 **Iritzia** Imanol Amiano, *Gizarte nerabea.*
- 36 **Atzera begira** Loiolako oroigarrien etxola.
- 40 **Iritzia** Ione Gurrutxaga, *Ohiturak.*
- 42 **Klik!** Txakur hezitzailea.
- 46 **Iritziak** Miel A. Elustondo, *Hileta*; Aintzane Garmendia, *Altxorraren bila.*

UZTARRIA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria

Julene Frantzesena

Erredaktoreburua

Ihintza Elustondo

Erredaktore taldea

Ihintza Elustondo
Julene Frantzesena
Mailo Olarzabal
Maialen Ebaniz

Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu

Publizitate arduraduna

Anjel Sarasua

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak:

Alaitz Ruiz
Luis Gurrutxaga

Txetxu Urbieta
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Aintzane Garmendia
Alex Berasategi

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-860/2000

ISSN: 1576-7337

Tirada: 2500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



azpeitiko udala
denon artean

uztarrria

UZTARRIA KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belarjendia
diestetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
Urbilari 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA



KIRURI
JATETXE

Lokala hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62



Aiortza Autoak
Behar duzun konfiantzazko salerari!

Marka guztiak
ibilgailuen konponketak:

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com



Eurofiter ELPROTALER MULTIMEDIA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jun: 649 12 02 71
ikazargilana@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA



uba
ehelkularitza

Analkularitza
lizea
lehenetsia
kontatua

Gestioi lanak
Finan administratza
Gestio inonibitariak

Tfn: 943 157 377 Faxa: 943 157 377
Buztanga kalea, 43 - 10010/10011/10012

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51



adi
ARTE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA

● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00

● **Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

● **Talia** 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 29 08
www.adiarte.com
Matrikula urte osoan zabalik

IRENE ALTUNA
SORIADENA

Lokala-Bidea, 26 Tel. 943-81 51 87
www.irenealtuna.com



ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!

Gorrotoaren biktimak



JULENE FRANTZESENA

Hainbat gaztek mutil bat jipoitu zuten Basaurin homosexuala izateagatik. Gaya izateagatik, mutil gazte bat hil dute Galizian. Lau donostiarrek bideo bat grabatu dute marikoiak jipoitu edo hil egin behar direla esanez. Bilbon bi mutil iraindu dituzte musu emateagatik. Gizon batek bere bi alabak hil ditu Tenerifen. Nagore Laffageren hilketatik hamahiru urte bete ziren egunean, gizon batek andre bat hil zuen labankadaz Murchanten, emakumearen bi seme-alaben aurrean.

Urtea hasi zenetik halako ehunka titular irakurri ditugu han eta hemen; bai, han eta hemen diot, hemen, Euskal Herrian ere gertatzen direlako halako basakeriak. Izebergaren punta dira kasu horiek guztiak, baina gorrotoaren biktimak horiek eta beste mila dira; izan ere, han eta hemen, egunero-egunero gertatzen dira eraso homofoboak, matxistak, arrazistak... Gorrotoa gure artean dago; hor daude begiradak, irainak, mehatxuak, eta horiek ere mina eragiten dute, askotan bizitzen jarraitzeko kemena ahitzen duen mina.

Kasu horiek guztiak ez dira kasualitatea; kausalitatea dira. Adierazpen askatasunaren izenean ahoa astakeriaz betetzen duten horiek behar baino leku gehiago dute masa komunikabideetan. Inolako erreparorik gabe aritzen dira beraiek bezala pentsatzen ez dutenen, beraiek bezalako azal kolorea ez dutenen, beraiek bezain patriotak ez direnen edo beraiek bezalako sexu orientazioa ez dutenen aurka.

Kezkatzekoa da mezu horiek hartzen ari diren indarra, kezkatzekoa da mezu onartezin horiek zabaltzeko duten inpunitatea, eta kezkatzekoa lau haizetara zabaltzen dituzten aldarri faxista nazkagarri horiek gizartean txertatzeko duten gaitasuna. Izan ere, gorroto mezuak ematen dituzten horiek zarata ateratzeko ahalmen izugarria dute, baina zarata horri lekua ematen dieten hedabideena ere bada erantzukizuna; eta ez nolana hiko.

Oraintsu, *El Jueves* umore aldizkaria argitaratzen duen RBA taldeko presidente Ricardo Rodrigo mehatxatu zuen Vox-ek Twitterren. Hala zioen ultraeskuineko alderdiaren txioak: "Bere aldizkariak milioika espainiarren aurkako gorrotoa zabaltzen du egunero. Bartzelonako Diagonalean duen bulegotik irteten ikusten dutenean, horietako asko erantzukizun eske hastea posible da". 26 milioi jarraitzaile dituen Naim Darrechi tiktokerrak, berriz, bortxaketaren apologia egin du, harreman sexualak dituenen kondoirik ez duela erabiltzen eta neskei antzua dela esaten diela adieraziz. Hitzak dira, mina eragiten duten hitzak, gorrotoa sortzen duten hitzak; onartezinak.

Masa nahi dute, masa akritikoa, onartezinak diren gauzak onartuko dituen, gorrotoan oinarritutako gizartea. Arrazagatik, azaleko koloreagatik, sexuagatik, jatorriagatik edo sexu orientazioagatik elkarren aurrean egongo diren herritarrak nahi dituzte, eta dagoeneko agerikoak dira ondorioak. Berandu da jada, kasu askotan mina eraginda dagoelako, baina denona da ardura. Ezin ditugu ekintza eta mezu horiek normalizatu, gorrotoaren mehatxua lepoa estutzen ari baldin bazaigu ere. Zer jendarte nazkagarri ari gara eraikitzen? ■■■

**GORROTO MEZUAK
ZABALTZEN DITUZTEN
HORIEK ZARATA
ATERATZEKO AHALMEN
IZUGARRIA DUTE**

Lala Sow: "Hasieran beldurtu egin nintzen euskararekin, sekula ez bainuen entzun"

TESTUA: JULENE FRANTZESENA

ARGAZKIA: ALEX BERASATEGI

Azpeitiarekin lotura estua du Lala Sowk (Bambey, Senegal, 1988); izan ere, ia hiru urte daramatza herritarren sabelak jaki goxoz betetzen.

Sanagustin kulturguneko sukaldaria da, eta Azkoitian bizi bada ere, Azpeitian igarotzen ditu hainbat ordu egunero.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

2012an, baina lehenago, 2007an, iritsi nintzen Espainiara. Almerian hiru urte egin genituen aurrena, eta handik Tenerifera joan ginen; han jaio zen nire lehenengo alaba. Tenerifen lau urte pasatuta, Euskal Herrira etorri ginen, senarra eta biok lanik gabe gelditu ginelako eta ez ginelako ari une oso ona pasatzen. Egia esan, oso gustura gaude orain. Hasieran kostatu egin zitzaigun lana aurkitzea, ahal genuen moduan moldatzen ginen; azoketan-eta aritzen nintzen haurrei-eta buruan trentzak egiten. Gero, baina, senarra lantxoak egiten hasi zen, eta ni arraindegi batean hasi nintzen beharrean. Ondoren sukaldari lanetan aritu nintzen Zumaiako jatetxe batean, eta gaur egun Sanagustinen aritzen naiz horretan.

Gustura bizi al zara hemen?

Bai. Almerian eta Tenerifen baino askoz hobeto. Ez dugu hemendik alde egingo; geratzeko etorri ginen... [barrez].

Euskal Herritik zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?

Herritarrek eta erakundeek asko laguntzen diete migratzaileei Euskal Herrian. Beharra duena laguntzen dute, arazoei irtenbidea ematen saiatzen dira... Atsegin dut hori, niri ere asko gustatzen zaidalako jendeari laguntzea. Euskal Herrira iritsi aurretik izan nintzen leketan ez nuen hori sumatu. Gutxien, berriz, eguraldia gustatzen zait. Hemengo eguraldia erotzekoa da; Senegalen, asko jota, hiru hilabetetan egiten du euria, eta inoiz ez du hotz handirik egiten.

Zerekin egin zenuen topo hona iristean?

Hasieran beldurtu egin nintzen hizkuntzarekin, sekula ez bainuen entzun euskara. Lanik ez nuela aurkituko pentsatzen nuen, ez nekielako euskaraz hitz egiten. Dena den, lanerako aukerak izan ditut, eta euskara ikasten hasi naiz euskaltegian. Sanagustinen egiten dut lan, eta hemen denek euskaraz hitz egiten dute. Hitz egitea kostatzen bazait ere, gauza batzuk ulertzen ditut dagoeneko. Bestalde, lagun asko egin ditut, eta horiekin kafea hartzea edo berriketan egitea atsegin dut. Zortea izan dut; ez dut esperientzia txarrik edo desatseginik bizi izan.

Senegalek eta Euskal Herriak ba al dute antzekotasunik zerbaitetan?

Ez, batere ez. Hemen bakoitzak berea egiten du; bere etxea dauka eta bere erara bizi da. Senegal, berriz, guztiz bestelakoa da: lagun baten etxera joan naiteke bazkaltzera aurrez abisatu gabe, eta hemen hori... Gainera, han zure haurrak nireak ere badira. Senegaldarrak oso-oso irekiak gara.

Eta hango eta hemengo sukaldeek ba al dute tankerarik?

Nik etxean denetarik prestatzen dut, eta Sanagustinen ere etxeko jatekoa egiten saiatzen naiz. Gustatzen zaidan janaria prestatzen ahalegintzen naiz, jendeak ere gustura jan dezan. Alde nabarmenena da guk Senegalen ez dugula txerrikirik jaten, baina hemen prestatzen dut, batere arazorik gabe. Euskal Herriko sukaldaritzaz zer den Zumaian lan egiten nuenean ikasi nuen; izan ere, Senegalen haragia ikaragarri kozinatzen dugu. Hemen, berriz, haragi ia gordina jaten da. Gogoratzen naiz Zumaiako jatetxean lehen aldiz xerra bat prestatu nuen egunaz: zapatilla baten zola zirudien [barrez].

Senegal faltan sumatzen al duzu?

Bai. Irailean hilabeterako joango naiz familia bisitatzera senarrarekin eta hiru seme-alabekin. Iaz, pandemia tarteko, ezin izan genuen joan, eta gogoz nago. Ama han daukat, zahartuta dago, eta bilobak ikusi nahi dituela esaten dit. ■■■



Ez daukan hori...



ARGAZKIA ETA TESTUA: ALAITZ RUIZ

Betidanik ibili izan naiz ez daukadan horri begira: bizilagunaren ile luzeari, lankidearen bizimodu arrakastatsuari, lagunak erosi berri duen etxe zoragarri horri... Ondoko mahaian duten ume matrail gorriari edo bestaldekoan duten parranda gogo biziari. Neguan eguraldi beroari eta udan neguko argazkiei begira.

Bai, horietakoa naiz ni ere. Beti albokoari begira barrura begiratu beharrean. Albokoa beti hobe delakoan, ez daukadan horren ametsetan ibiltzeak naizen guztia ezkututzen didala ohartu gabe. Norbera izatea, izate hutsagatik bakarrik, gutxi balitz bezala. Momentua bera bizitzea nahiko opari ez balitz bezala. ■







Manuel Atejada Zugazabeitia

Eta irakurleak galdetuko du: “Eta zein da Manuel hau?”. 36ko gerrak, hainbat gerrak bezala, hamaika istorio utzi digu. Ekarki dudana interesgarria iruditu zait, euskal protagonista baten kontakizuna delako, gertutik kontatua; hain zuzen ere, pertsonaiaren seme Imanolen eta Sara birbilobaren ekarpenetan oinarritutako idatzia da.

Manuel Atejada Zugazabeitia. “Nire aita Algortan jaio zen 1895ean, eta marinel familiakoa izaki, gazte zelarik itsasontziko kapitain titulua lortu zuen”, dio seme Imanolek. Abertzalea eta guztiz konprometitua Euskal Herriarekin, 36ko gerraren testuinguruan, Eusko Gudarosteko buruzagietakoa izan zen, eta Baionako behin-behineko gobernuko ordezkaria. Bankuko ondarea erreskatatu

zuen; arte koadroak, urte lingoteak, zilarra eta beste hainbat aberastasun alemanengandik at uztea lortu zuena. Honela jarraitu du Imanolek: “A! Oso garrantzitsua, baita ere, Eusko Gobernuko dokumentazio guztia. Aitaren irizpideak gailendu, eta berari esker, dena atera eta salbu utzi zuen atzerrian. Horregatik guztiagatik, 5.000 frankoko saria jaso zuen Eusko Gobernutik”. Eta froga bezala, Lisandro de Latorre garaiko Ogasun kontseilariak luzatutako dokumentua erakusten dit, 1938ko datarekin, non zera dioen: “Lehendakariaren onarpenez erabaki zen diru kopuru hori ematea, jakin arren ez zela nahikoa egin zuenagatik: euskaldunen ondarea arerioen eskuetatik salbatzea”. Beste dokumentu batek –1937koa eta Kataluniako eta Valentziako

autoritateei zuzendua– zera dio: “Atejadak misio ofiziala martxan jartzeko behar dituen erraztasun guztiak emateko, bera baita arduraduna misio ofiziala gauzatzeko. Dokumentuaren zigilu ofiziala horrela dator: Gobierno provisional de Euzkadi. Delegacion de Bayonne (27-03-1937). “Begira nolako garrantzia izan zuen aitak”, dio harrotasunez eta nostalgiaz.

Asturiasko 1934ko matxinada. Baina 36ko gerra lehertu baino bi urte lehenago, Imanolen aita iheslaria bihurtu zen. 1934ko Urriko Iraultza gisa ezagutzen dugunean, partaidetza zuzena izan zuen prestaketa lanetan. Cadizen itsasontzia erosi, armaz eta munizioz kargatu (300.000 kartutxo, 1.800 esku granada, 24 metrailadore, 500 fusil eta 700 bomba negartiar) eta Asturiasko Nalon ibai aurrera ekarri zuen

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Gutxi

Zutabe hau dakusazunean, ni neu, neroni, hegoaldeko gure hondartzarik luzeenean eta ederrenean txaparrotan egongo naiz (xapogeografikeriatan orain ere). “Alferra orain ere etzanda”, pentsatuko duzue. Ez naiz ba ni hondartzako harean etzanda asko egotekoa. Bi ilehoriek, egoten ere, gutxi uzten didate.

Bizitzako lanerdietara iristear, erabat zoriontsu izateko gutxi behar dudala sentitzen dut. Uneotan, etxeko goxotasunaz gain, osasuna, pare bat lagunentzako tertulia (norbaiti kontra egin egin behar, etxean, zurean bezala nirean ere, beti “amen” esan behar baita) eta beste pare bat kaferekin konformatzen naiz. Korforma erraza naizela pentsatuko duzu, neronek ere hori pentsatzen dut. Edo nuen. Eta orain dator filosofokeria. Gutxi izugarri da (*pixka bat es mucho* baino gehiago). Gizarte materialista eta indibidualista honetan etxeko goxotasuna izatea gutxi al da? Osasuna izatea gutxi al da? Bi lagun, eztabaidan lepoko zaina erakusten uzten dizuten bi lagun izatea, gutxi al da? Bale, bai, pare bat kaferena asko ez da. Zoriona, merkea delakoan, baloratzen ez duzun horretan dago. Horregatik da Gucci hain garestia.

Zutitu eta uretara noa. Posible da. Eguzkiak kalte egin dit, eta frexkatu on baten beharra daukat. Neure onera ez naiz etorriko, baina sukarra baretzen lagunduko dit. Uda on eta zabiltzaten tokian zabiltzatela, utzi xapo arrastoa. Nabarmenak omen gara. Hori ere, gutxi esatea izango da. ■

Turquesa itsasontzia. Gauerdian, kargamenduaren zati bat lehorreratu zutenean, ordea, Guardia Zibilak zapuztu zuen operazioa. Lanak zuzentzen, han bertan, Indalecio Prieto, ministro ohia eta garaian Kongresuko diputatua. Atxilotu arren, aske utzi zuten berehala. Bitartean, ihes egin zuen Atejadak; lehenik Bordelera, eta gero, Suez kanala zeharkatuz, Afrikako Djibutin baztertuta utzi zuen *Turquesa* itsasontzia.

Eta, familia, Imanol, nola moldatu zen? “Lau arreba eta bi anaia ginen, ni gazteena, eta 1937an lehenik Baionan, eta gero, Ondresen (Landak) bizi izan ginen. Gerra garaian, Baionako Eusko Gobernuako delegaritzan egin zuen lan aitak, Marinako ordezkari gisa, eta 1940an, Marsellan itsasontzia hartu eta familia osoa

Argentinara erbesteratu ginen. Badakizu itsasontzian nortzuk zihoazen? Garaiko ziklista onenak, Buenos Airesen lehiatzera: Luciano Montero, Bertola, Loati, Alvarez... A! Eta frantses tropak Oranera! Aitak itsasoan jarraitu zuen lanean, eta bitxikeria bezala, esan hegaluzea jaki bezala ezagutarazi zela argentinarek, ordura arte ez baitzuten ezagutzen. 59 urterekin hil zen. Erorikoa izan itsasontzian, sendagileak garrantzirik ez eman, eta hotelean bakarrik hil zen”, dio saminez. Joan-etorriko bidaia egin zuen Imanolek. Bost hamarkadaz Argentinan bizi ondoren, familiarekin Euskal Herrira itzuli zen; lehenik Algortara, eta gero, Azpeitira, Manuel Atejada Zugazabeitia 36ko gerrako euskal heroiairen semea. ■





ESKERREZ BETETAKO AGURRA

Zer diren gauzak, Zabala harategiak ez du inoiz jaiegunik hartu; igandeak salbu, noski. Aurtengo San Inazio datak amaitzean, ordea, betirako itxiko ditu ateak. Behin eta betirako izango da, beraz. "Igande batean ezkondu ginen Iñaki eta biok, nahita egin genuen, denda ez ixteko. Gurasoak bi igandetean hil ziren, eta gure umeak bi igandetean jaio ziren... horrelaxe tokatu zen bi kasuetan. Kuriosoa!", dio Mari Karmen Agirrezabalaga Zabala harategiaren jabeak.

Harakinen familia da Agirrezabalagarena. "Aitaren anaia zaharrenak harategia zuen Erdikalean, eta harekin hasi zen lanean. Erdikalekoaz gain, bazuten beste postu bat Azoka Plaza zaharrean; ez berritu dutenaren aurrekoan, zaharra-goan baizik. Ez dakit zenbat urte egin zituzten elkarrekin lanean, baina bideak banandu egin zituzten, eta aita Juanitok Bustinzuriko Errebaleko harategia ireki zuen duela 70 urte", gogoratu du.

1951. urtea zen, eta orduan ez zekiteneen arren, negozioak bide oparoa zuen aurretik. Hainbeste urtetan gauzak asko aldatu direla aitortu du Agirrezabalagak, salmentari eta produktuei dagokienez, besteak beste. "Hasieran haragia saltzen zen, txahalarena. Gogoan dut oraindik aita hiltzaira joaten zela, eta berak hiltzen zuela txahala. Ondoren iritsi ziren abere-hiltzailleak. Gero, neska koskorra nintzela, oilaskoa sartzan hasi ziren poliki-poliki, txorizoeekin eta gainontzoeekin batera. Garai hartan ez zen sukaldako lanik egiten, baina nire amak esku ona zuen sukaldarako, eta gauzak prestatzen hasi zen", azaldu du.



Lana egiteko moduan ere aldaketa nabarmenak izan dira: tripakiak, adibidez, etxean garbitu behar izaten ziren lehen; orain, aldiz, garbituta iristen dira hiltegitik. "Lantegi nekosoa zen hori, gaur egungo gazteek ez lukete horrelakorik egingo!". Negozioari itxura berria ere eman zioten; duela 30 urte izan zen hori, aitak erretiroa hartu zuenean, eta senar-emazteek negozioarekin jarraitzea erabaki zutenean. Eraikin guztia familiarena zen, oso zaharra zegoen, eta goitik behera berritzeko hautua egin zuten, denda barne.

Gauza asko ikusi, bizi eta ikasi dute, beraz. Iñaki Ugarte-
txeak, adibidez, harakin lana zer zen ez zekien Mari Karmen ezagutu aurretik. "Mari Karmenen aitak irakatsi zidan orain dakidan guztia. Baina gauza berriak ere ikasi behar izan ditugu; izan ere, aldatetara eta egoera berrietara egokitu behar izan dugu. Bezeroen nahiak eta beharrak aldatzen joan dira, eta erantzunak ematen saiatu gara. Aurrez presatutako jakiek hartu dute indarra azken urteetan, eta kamara edo hozkailua husten joan da", esan du Ugartetxeak.

Eskerrak, letra larriz

Agur esateko garaia iritsi zaie, eta hitz bakarra dute esateko: "Eskerrik asko". Bezero guztiak dituzte gogoan, eta denak, bat bera ere ahaztu gabe, eskertu nahi dituzte, Bustinzuriko Errebaleko eta inguruko herritar horiek gabe Zabala harategia ez baitzen ezer izango. Hala ere, badituzte bezero kutunak: "Sierbetako mojak. Aitak harategia zabaldu aurretik bezero ziren mojak, eta orain arte jarraitu dute. Horregatik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu".

Zorte handia izan dutela pentsatzen dute, osasunak, bezeroek eta langileek lagundu baitiete horretan. "Horiekin guztiekin dendak martxa ona eman izan du beti, baina orain erretiroa hartzeko garaia iritsi zaigu. Gure ondorengoek ez dute nahi jarraitu negozioarekin, eta hori onartzea dagokigu. Guk nahi genuena egin genuen gure garaian, eta orain, besteek ere nahi dutena egin behar dute".

Azken finean, belaunaldi arazoa dela eta, egungo gazteek beste mota bateko lanak nahiago dituztela uste dute: "Lan aberasgarria da, pertsona asko ezagutzen dituzu mostradorearen atzean, baina lotua da". Eta abuztutik aurrera, zer? "Hor dugu arazoa, nik beti lana egin izan dut, hau da egiten dakidana, eta zalantza apur bat badugu, baina asmatuko dugu zer egin!".

BEZERO GUZTIAK DITUZTE GOGOAN, ETA DENAK, BAT BERA ERE AHAZTU GABE, ESKERTU NAHI DITUZTE



"Zaindu egin behar dugu gure hizkuntza, aberastu eta txukun erabili"

PELLO ELORZA EUSKARA PATRONATUKO LANGILE OHIA

Azpeitiko Udal Euskaltegiaren sorreratik oraintsu arte Euskara Patronatua aritu da lanean Pello Elorza (Azpeitia, 1958). 37 urteotako ibilia errepasatu du, eta etorkizunera begira ere jarri da. Zineman eta politikagintzan egindako lana ere ekarri du gogora.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Julene Frantzesena eta utzitakoak**.

Noiz eta nolatan hasi zinen Euskara Patronatua lanean?

Eusko Jaurlaritza euskara sustatzeko ahalegina egiten ari zen, eta erakunde horrek HABE sortu zuen 1982an. Udalekin elkarlanean, herriz herri hasi zen euskaltegiak sortzen, eta Azpeitiak –EAJ zegoen Udal Gobernuan– 1984an sortu zuen. Oposizioak izan ziren, aurkeztu egin nintzen, eta plaza lortu nuen. Lau laguneko taldea eratu zuten, Azpeitiko biztanle kopuruari hala zegokiolako, eta hasiera hartan, ni izan nintzen azpeitiar bakarra; gainerako lankideak –Patxi Saez, Ane Amundarain eta Kotsuelo Gorostidi– goierritarrek ziren. Zezen plazaren ondoan, Lapatxenek ere eremuan, zegoen INEMen etxe aurrefabrikatu batean zabaldu zituen ateak euskaltegiak. 1983an, uholdeak izan ziren Euskal Herri osoan, baita Azpeitian ere, eta lokal hura urak hartu zuen. INEMek zegoen bezala utzi zuen lokalak, eta 1984an, euskaltegia non kokatu pentsatzen ari zirela, lokal harekin gogoratu ziren. Donostiara joan ginen baimen eske; baietz, erabil genezakeela esan ziguten, eta erabilia akordioa egin genuen. Osatu genuen lantaldearen lehen egitekoa lokal hura dena garbitzea izan zen; izan ere, lokatza izugarria zegoen barruan. Behin txukunduta, martxan hasi ginen; hori bai, ahal zen moduan. Udalak gelak-eta atondu zituen, baina hasiera haietan ez geneukan ezer: idazkaririk ez zegoen, eta dena geuk eskuz egiten genuen; fotokopiagailurik ez genuen, eta eguneroko

udaletxera joaten ginen lanerako behar genituen fotokopiak ateratzera. Lehen ordenagailua 1985ean-edo ekarri ziguten. Gero, eremu hartan etxeak egin behar zituztela eta, institutura lekualdatu zuten euskaltegia, eta han pare bat urte eginda, Sindikatu Zaharrean igaro genituen sei bat hilabete. Handik gaur egun dagoen lekura eraman zuten euskaltegia.

Nolakoa izan zen hasiera hura?

Ordurako aritzen nintzen euskara klaseak ematen; Batzokian jardun nuen bospasei urtetan, Joxe Mari Olaizolarekin lankidetzan. Beraz, ohituta nengoan, eta gustatu egiten zitzaidan euskara irakastea. Ikasketaz delinearazalea naiz, baina ez dut sekula horretan jardun. Euskaltegian lanean hasi nintzenez, Filologia Hispanikoa ikasi nuen UNEDen. Euskal Filologia egiteko aukera bazen ordurako, baina Gasteizen, eta lanean ari nintzenez, ezin nuen eskoletara joan.

Zer helbururekin sortu zen euskaltegia Azpeitian?

Euskara indartzeko erabaki instituzionala hartu zuen Jaurlaritzak, eta asmatu egin zuela uste dut. Herriz herri sortutako euskaltegiak sare baten barruan sartzea zen helburua, baina gero hori ez zen gauzatu, eta euskaltegi bakoitza bere herriaren ardurapean geratu zen. Euskaltegi-tako lana profesionalizatu eta duindu egin zen, nahiz eta euskaltegi guztietan ahalegin horretan ari ziren lehendik ere. Erakundeetatik halako bultzada emateak, gainera,



indarra eman zion euskarari. Euskaltegietan zuzenean aritzeko baimena lortu zuten gau eskoletan edo beste edozein tokitan euskara klaseak ematen hamar urte zeramatzaten irakasleek, eta bost eta hamar urte bitartean zeramatzatenek azterketa egin behar izan zuten. Nik hala egin nuen, Donostian, eta gaindituta, euskaltegietan eskolak emateko baimena lortu nuen. Galanta da, baina azpeitiar bat egokitu zitzaidan azterketako epaimahaian: Patxi Altuna euskaltzain zena.

Euskaltegia Euskara Patronatu bilakatu zen gero?

Hasieran, euskaltegia bakarrik izan zen Azpeitiko, HABErekin lankidetzan sortutakoa. 1999an, ordea, pauso bat gehiago eman eta Euskara Patronatua sortu zuen udalak, eta haren barruan sartu zen euskaltegia. Patxi Saezek lortu zuen patronatuko zuzendari postua, eta patronatua hiru zatitan banatu zuten: euskaltegia, Elegune proiektua eta Erabiliren webgunea. *Erabili.com* ataria euskalgintzan erreferente izatera iritsi zen, baina gero indarra galdu zuen, beste erabaki batzuk hartu zituelako udalak. Geroago, etorkinen seme-alaba gaztetxoentzako, Etorkizun programa jarri zen martxan, eta gaur egun hiru adar ditu Euskara Patronatuak: euskaltegia, Elegune eta Etorkizun.

Euskararekiko grina nondik datorkizu?

Gazte-gaztetatik. Gure etxean denak euskaldunak eta euskaltzaleak ziren; euskararen aldeko jarrera

zuten. 16 bat urte nituela, Betharrametean euskara eskola batzuk eskaini zituzten, eta haietan izan nintzen. Betidanik asko gustatu izan zait euskararen mundua, eta hizkuntza lantzea ere bai. Hala hasi nintzen irakasle lanetan Batzokian: “Hi moldatzen haiz euskaraz, eta klaseak ematen hasiko al haiz?”, esan zidaten.

Ikasle pila bat izango zenituen urte guztiotan, ezta?

Bai, bai. Euskaltegia sortu zutenean, artean kontu berria zen euskara batuarena. Berez, urteak zeramatzan martxan, baina jendeak urrun ikusten zuen. Orduan, ez ziren asko eskolak euskaraz ematen zituztenak; ikastolak bai, ordurako martxan hasiak ziren eta. Egoera hartan, batez ere, euskara lanerako-eta behar zuen jendea gerturatzen zen euskaltegira, baita erdaldun jendea ere, euskaldunekin ezkonduetakoak gehienak. Izan ere, orduan ere baziren euskal kultura interesatzen zitzairen edo euskara maite zuten etorkinak, eta haietako ikasle batzuk ere bagenituen. Gero, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, lanpostu publikoetarako hizkuntza eskakizunak jarri ziren martxan, eta Azpeitiko Udalak ere zehaztu zituen horiek. Jendeak ikusi zuen eskakizun hori bete behar zuela, eta horrek ere izan zuen eragina.

Urte guztiotan denetarik izan da euskaltegian: adin guztietako jendea, eta 70 urtetik gorako zenbait pertsona ere bai. Haietako batek esan zidan



Udal Euskaltegiaren lehen eraikina. UTZITAKOA

bazekiela ez zuela euskaraz ongi hitz egiten ikasiko, baina hizkuntza maite zuela eta gustatu egiten zitzaiola, eta... Beste batek EGA ere atera zuen. Beste ikasle batzuek, berriz, bizpahiru maila urtebetean egin izan dituzte. Urtero, batez beste, 80-100 ikasle izan dira euskaltegian, eta horietako askori eman dizkiet klaseak. Poza ematen du euskara ikasten zerotik hasi ziren pertsonak kalean ikusi eta orain horiek euskaldun petoak direla jakiteak; euskaraz agurtzen nautenean poza hartzen dut.

Zenbat urte egin dituzu Euskara Patronatuan lanean?

Euskaltegian 37 urte, guztira. 1984an hasita, hogeitatu urte egin nituen euskaltegiko zuzendari karguan. Ondoren, Patxi Saez eta Aintzane Agirre aritu ziren lan horretan, eta azken urte hauetan Olatz Zabaleta aritu da. Hasiera hartan, zuzendariak ikasle talde bat hartzen zuen, astean hamar orduz eskolak emateko, eta gainerako orduak administrazio eta zuzendaritza lanak egiteko ziren. Kontua da udalean gero eta presentzia handiagoa hartu zuela euskaraz; izan ere, proiektuak-eta euskaraz aurkezten hasi zen jendea, eta herritarrek agiriak euskaraz jaso nahi zituzten. Baina nork euskaratu behar zituen horiek? Niri esan zidaten, eta horretan hasi nintzen, hasieran lan bakanak zirelako. Gero, ordea, itzulpenen lan karga areagotzen hasi zen, eta askotan lanorduetatik kanpo eta asteburuetan aritzen nintzen itzulpen lanetan. Horrela ezin zuela izan eta, orduko alkate Joxe Mari Bastidari esan nion lan karga handia zela jada, eta irakasle edo itzultzaile lana aukeratzeko esan zidan hark. Irakasle lana alde batera utzi nuen. Ordurako Interneta bazen –eskerrak–, baina hainbat hiztegi eta lagungarri ere; Elhuyarren hiztegia, adibidez. Gero, 2000ko hamarkadako krisialdi ekonomikoa etorri zen, udalean aurkezten ziren proiektuen eta eskakizunen erritmoa apaldu egin zen, eta beraz, nire egitekoa ere bai. Orduan, itzulpen zerbitzua murriztea erabaki zuen udalak, eta lan jardunaren erdia itzulpenetarako eta beste

erdia klaseak emateko baliatzen nuen. Azken bi urteotan, berriz, irakasle lanetan aritu naiz jardun osoz. Hasi nuen modu berean bukatu dut ibilbidea, irakasle lanetan.

Gustura aritu al zara?

Bai, oso gustura, benetan. Lana izan da, baina ez da zama izan. Izan ere, beti gustatu izan zait irakaskuntza. Egia esan, pena pixka batekin ere utzi dut lana. Noiz edo noiz utzi beharra dago, ordea, eta... Gazteei ere laga behar diegu bidea. Osasunez ere orain ondo gaude, eta aprobetxatu egin beharko dugu jubilazioa. Gazteak etorriko dira, gure ondorengoak sartuko dira.

Hamaika istorio bizitakoa izango zara. Anekdotarik bai?

Baditut, bai. Euskaltegiaren lehen eraikinean geundela, arratsalde batean lanera joan eta senar-emazte batzuk bulegoan zain nituela esan zidan lankide batek. Joan nintzen, eta hala esan zidan gizonak: “Ez dugu elkar ezagutzen. Kataluniarra naiz, eta euskara atsegin dut. Soldaduska Gasteizen egin nuen, eta lagun azkoitiarrak egin nituen. Haiek euskaraz hitz egiten zuten, eta gustatu egin zitzaidan hizkuntza; badakit ez dudala euskara ikasiko, baina kuriositatea daukat, eta zerbait egin nahi dut”. Bartzelonara ariketak bidaltzeko eskatu zidan, eta halaxe hasi ginen. Bidaltzen nizekin, egiten zituen, eta bueltan bidaltzen zizkidan. Nik zuzendu eta Bartzelonara bidaltzen nizekin ariketa berriak eta zuzendutakoak. Joan Cuxart zen gizon hura –duela urte batzuk hil zen–, eta lagun egin nuen. Poemak euskaraz idaztera ere iritsi zen; hitz egiten ez, baina euskararen egitura-eta ikasi egin zituen. Aste Santuetan urtero etortzen ziren senar-emazteak Azkoitiko lagunak bisitatzen, eta haiekin bazkaltzen nuen egun haietako batean. Hiruzpalau aldiz joan nintzen haien etxera Bartzelonara. Harreman oso polita egin genuen.

Euskarak zer bilakaera izan du urteotan Azepeitan?

Erantzun asko dituen galdera poliedrikoa da hori. Hasiera haietan, modu boluntarioan aritzen ginen baliabide gutxi zegoelako; orduak sartu behar baziren, sartu egiten ziren. Beti ibiltzen ginen batetik eta bestetik euskaltegian lantzeko materiala ateratzen. Estandarizatzen direnean, bidesari bat ordaindu behar izaten dute hizkuntza guztiak, eta euskarak ere ordaindu du. Hasiera hartan ez zitzaion gehiegizko garrantzirik ematen gaztelaniatik sartu zitzaizkigun kalko semantikoei; nahikoa zen jendea euskara erabiltzen hastea, batez ere erdaldunak zirenak. Baina euskara ez da gaztelaniaren kalkoa; euskarak bere formak eta moldeak ditu. “Gose asko”, “flipau” eta “klarue



Goian, *Mateo txistu* filmeko lantaldea, 1987an. Behean, Pello Elorza eta Jabier Altuna Azpeitiko EAJri buruzko liburuaren aurkezpenean. **UTZITAKOAK**

"AZPEITIKO BIZTANLEEN %90 EUSKARAZ ARITZEN DIRA, BAINA ORAINDIK BADIRA JORRATZEKO ESPARRU BATZUK"

"HIZKUNTZA BAT EZ DA JAKITEKO SOILIK, ERABILTZEKO DA; HORI DA HIZKUNTZAREN EXISTITZEKO ARRAZOA"

"BESTEAK ZER ESATEN DUEN ENTZUTEA GARRANTZITSUA DA, BAITA HORRETAZ HAUSNARTZEA ERE"

daukek" bezalako kalkoak ezinbestean onartu egin behar izan ditu euskarak, nahi ez izan arren, eta gazteen artean kalko horiek errotu egin dira, adierazkortasunaren izenean. Euskaraz ez al dago, ordea, horiek esateko beste modurik? Bai, baina kalko horiek jada barneratuta ditugu. Zentzu horretan, salbatuko den hizkuntza bakarretakoa ingelesa izango da, beste hizkuntza guztietan hartzen direlako haren kalkoak. Gai honi buruz irakurtzen aritu naiz, eta badakit frantziarrak eta espainiarrak haserre dabiltzala ingelesetik kalko asko ari zaizkielako sartzten. Beraz, milioika hiztun dituzten horiek protestan ari badira, pentsa zer gertatuko zaion euskarari hain hizkuntza txikia izanda! Zaindu egin behar dugu gure hizkuntza, aberastu eta txukun erabili, geure espresioidea baita. Kalitateari begiratu beharrean, kantitateari begiratzen zitzaion lehen. Izan ere, euskara gainbeheran zela eta, salbatu egin behar zen, eta horretarako hiztunak behar ziren. Euskaraz erdipurdi egitea ere baloratu egin da, eta egia esan, nahiago nuke Euskal Herriko biztanle guztiok erdipurdi bada ere euskaraz aritzeko gai izango bagina. Ahalik eta ondoen arituta hobe, jakina. **Euskara Patronatuak zer erronka ditu aurrera begira?** Erronka asko, eta etorkizun interesgarria ere bai. Patronatuari daukan garrantzia eman behar zaio. Egia da Azpeitiko biztanleen %90 euskaraz aritzen direla, baina oraindik badira jorratzeko esparru batzuk, hala nola etorkinena, etorkinen seme-alabena, enpresa munduarena... Erronka handiak dira, baina heldu egin behar zaie. Bada zer egina, egunen batean euskaraz funtzionatuko duen Euskal Herria lortzeko.

Kezkarik sortzen al dizu euskararen norabideak?

Bai. Hizkuntza bat ez da jakiteko soilik, erabiltzeko da; hori da hizkuntzaren existitzeko arrazoa. Giza talde batek hizkuntza bat adierazteko garatu du. Jakin bai, baina erabili ez? Arraroa da. Zerk eraman gaitu horretara? Garai batean baino arrazoi gehiago daude horretarako: euskara ez beste hizkuntzatan aritzen diren hainbat eta hainbat telebista kate ditugu, eta orain modan dauden plataformetara joaten bagara, irla txiki-txiki bat gara. Zerbait erakargarria sortu behar dugu jendeak euskarazko edukiak kontsumi ditzan: egunkariak, informatikako gauzak, liburuak, telebista, irratia, sorkuntzaren mundu digital guztia... Hortik jo behar dela uste dut. Lortuko al dugu? Baikorra naiz, eta gure gizarteak lortuko duela uste dut, baina urte luzeetako lana izango da. Gu ordurako beste lekuren batean izango gara...

Azpeitiko zineklubean ibilbide luzea egina zara. Nola oroitzen duzu sasoi hura?

Betidanik izan naiz zinemasalea; gure kuadrilla Soreasun izaten zen igandero-igandero. Egun batean, Pepe Azpiazu eta Olatz Errazkin etorri ziren nigana, eta hala esan zidaten: “Zineklub bat sortu nahi diagu. Hiri zinema asko gustatzen zaik, eta nahi al duk taldeko partaide izatea?”. Baietz esan nien, taldea osatzeko jendea behar zutela eta. Bileran bat egin eta lagun taldea osatu genuen: Ramon Etxeberria, Jabier Arenas, Anjel Rodriguez... etorri ziren, baita beste lagun pila bat ere. Martxan hastean, zinema emanaldi bakoitzean orri bat banatzen genuen, filmaren sinopsiarekin eta zuzendariak film harekin izan zituen asmoekin.

Hura izaten zen emanaldiaren osteko eztabaidarako gida. Hasieran, euskaraz eta gaztelaniaz ateratzen genuen orritxoak, eta ibilian-ibilian neu hasi nintzen euskarazko zatiaz arduratzen. Gero, hileroko eskuorri bat ateratzen hasi ginen. Zinema emanaldiez gain, beste hainbat gauza ere egiten genituen: adibidez, pelikula txikiak super 8 formatuan, gero Zestoako Zine Topaketetan, Lekeitioko Zine Bileran eta Euskal Herri osoko zinema lehiaketetan aurkezteko. Sari pila bat lortu genituen. Horrez gain, herrian *tomabistasak* zituztenei begira, pelikulak muntatzen eta horiei soinua jartzen ikasteko saioak ere antolatzen genituen, eta argazkilaritzako saio batzuk ere bai.

Zer lan egin zenituzten?

Zinema lantxo asko egin genituen, gehienak super 8 formatuan, hura zelako garai hartan zegoena.

Artean bideoa ez zen hemen ezagutu ere egiten; hori gerora etorri zen. Egin genuen pelikula haietako bat *Kutsadura* izan zen, ibaietan izugarriko kutsadura zegoelako garai hartan. Beste film bat 16 milimetroan egin genuen: *Mateo Txistu*.

Kolaboratzaile asko ibiltzen ziren gurekin: aktoreak, makilatzaileak, kameralariak... Pako Aristirekin ere egin genuen beste lan bat, fantasiazkoa, *Super 8 Century Plast!* izenekoa. Jende asko mugitu zen orduan, eta aktore lanetan hainbat lagun aritu ziren: gogoan ditut Imanol Eliasen antzerki taldeko Juanito Bikendi, Pedro Otaegi, Pilar Aizpitarte, Joxe Aranburu... Askok izan ziren lan haietan ibili ziren herritarrik; barka nazatela ez badituzten denak aipatzen. Herriz herri ibiltzen ginen guk egindako lanak erakusten.

Zeu ere aktore lanak egina zara, ezta?

Bai, 1982an, baina konturatu nintzen ez nuela horretarako balio, eta gehiago ez nuela egingo esan nien [barrez]. Ni hobeto moldatzen nintzen kameraren atzean. *Azken lamia* filmean parte hartu

nuen. Lan haren argumentua zen lamia modernoa zela telebista, haiek bezala jendea liluratzen zuelako. Ni telebistari begira lelotuta zegoen hala moduzko artzain bat nintzen. Pepe Azpiazu nire aingeru guardakoa zen, eta ni zaindu behar ninduen. Horregatik, zerutik lurrera jaitsi zen, ni telebistaren atzaparretatik ateratzera. Pelikulak egiten mundial pasatzen genuen, eta film haren grabaketan izugarriak egin genituen; izan ere, izugarriko imajinazioa zuten taldeko kide batzuek. Pepe zerutik lurrera jaisten irudikatzen A-8 autobideko tunel bat baliatzea otu zitzaion: Anjel Rodriguezek butanoa banatzeko erabiltzen zuen kamioia hartu, gainean zilindrada handiko motortzar bat lotu eta haren gainean jarri zuten aingeruz jantzita Pepe. Kamera kontrapikatuan jarri zuten, kamioia ziztu bizian A-8 autobidean aurrera zihoala grabatzeko. Pentsa autobidean zihoazen gidariek zer ezusteko hartuko zuten koadro hura ikustean [barrez]. Ez dakit nola konbentzitu zituzten autobideetako arduradunak une hura grabatzeko baimena emateko. Horrez gain, Errezil aldeko koba batean grabatu genuen film haren beste zati bat, eta kobara argindarra irits zedin, fokuentzat behar genituen 200 metrotik gora kable pasatu genituen. Orduan genuen ausardia ez zen neurtzeko modukoa; okurritu eta egin, ez zegoen egin ezin zenik.

Zineklubak gainbeheran dira orain...

Garai hartako seme-alabak ginen. Francoren heriotzaren inguruko urteak ziren, eta ez zen adierazpen askatasunik. Nola lor zitekeen hori? Zinekluba zen bide bat, edo bestela, kultur ekitaldiak. Zinekluba *booma* izan zen; Soreasun 900 bat lagun kabitzen ziren goiko eta beheko solairuetan, eta askotan betetzen zen. Garai hartan arte eta entsegu filmak ekartzen genituen, zinemagileen lan pertsonalak, publiko orokorretik kanpokoak, eta arazoak izaten genituen. “Arriskutsutzat” hartuta zeuden, pentsarazi egiten zutelako; gertatu izan zitzaigun filma eskatu eta ukatzea. Behin, The Who taldearen *Quadrophenia* eman genuen, eta leporaino bete zen; jendea pasilloetan eta dena egon zen... Gaur egun, dena esku-eskura dugu etxean. Bestalde, zoritxarrez, galdu egin da zineklubaren ohitura hori, eta egia esan, pena sentitzen dut, pentsatzen ikasteko bidea direlako. Ezer ez da eman behar ziurtzat; ziur egonda ere, besteak esandakoa entzun egin behar da, beste begi batzuk ere badirela ikusteko. Besteak zer esaten duen entzutea garrantzitsua da, baita horretaz hausnartzea ere, eta gero ikusiko duzu



2021eko Euskara Patronatuko lantaldea. UTZITAKOA

ados zauden ala ez, baina arrazoitzen ikasi behar da. Gaur egun, asko galdu da hori; dena ontzat ematen da, dena sinesten da. Kritikotasuna galdu da, baina gauzak kontrastatu egin behar dira. Nik zineklubean ikasi nuen horretan, eta gainera, taldean mundial pasatzen genuen. Eskola polita izan zen niretzat, ideia desberdinak genituen pertsonen batura zelako.

Politikan aritua ere bazara. EAJko zinegotzi izan zinen Azpeitiko Udalean, Uri Buru Batzarreko presidentea ere bai...

Bai, 1983an hartu nuen zinegotzi kargua, Imanol Elias alkate eta Joxe Mari Bastida alkateorde zirela. 1984an etorri zen euskaltegiaren sorrera, eta bi lanak bateragarriak ez zirenez, zinegotzi kargua utzi egin nuen urtebete eginda. Dena den, lau agintalditan jarraitu nuen Kepa Ibarzabal Festa zinegotziari bere zereginetan laguntzen. EAJko afiliatua naiz, eta denboraldi batean Uri Buru Batzarreko mahaiko kide eta buru ere izan nintzen. Azken urteetan, baina, egiteko horietatik atseden hartu dut. 2017an, berriz, *Aberria bihotzean*. *Azpeitiko EAJren 110 urteko historia* liburua idatzi nuen, gure herriko EAJren ibilbidea gal ez zedin.

Askok gustatzen al zaizu politika?

Gustatzen zait edo, hobeto esanda, herrigintza interesatzen zait; bestela ez nintzatekeen hor ibiliko. Hala ere, nire asmoa ez da sekula izan politikan ez dakit nora iristea. Ikusten nuen nire

lekua euskaltegia zela, eta horrekin bateragarria zela Uri Buru Batzarreko kide izatea. Herri honetan gauza asko zegoen egiteko garai hartan; oraindik ere badaude, baina azken urteotan bigarren plano batean nago, gure alderdian badagoelako lan horiek oso ondo egiten ari den jende berria eta gaztea. Ni politikan bigarren mailan edo alderdiko erakundeen barruan aritu naiz; izan ere, alderdi batean laguntza behar izaten da, oinarri baten babesa, eta horretan aritu naiz. Dena den, garai gogorrek ere bizi izan genituen: Uri Buru Batzarreko lehendakari izendatu orduko, diana bat pintatu zidaten etxeko karreran, erdian "Pello" idatzita; edo gazteagotan, hogeitaka urterekin Erdikalean gora eta behera ibiltzen ginenean, zenbait tokitatik pasatzean, "ta-ta-ta-ta" metrailetara zarata oihukatzen ziguten. Garai gogorrek izan ziren, eta gertaera haiek eragin egiten zizuten, baina niretzat baino okerragoa zen etxekoentzat... Ni nire gogoz nenbilen kontu haietan, baina etxekoek ez zuten ni herrigintzan sartuta ibiltzearen batere errurik. Orain giroa lasaiago dago; zorionez, egoera aldatu egin da. Ideia desberdinak izateak ez du esan nahi elkarren etsaiak garenik; gaztelaniaz oso ondo bereizten dituzte *adversarios* eta *enemigos*. Ideia desberdinak izan arren, elkarrekin hitz egin eta elkar errespetatu behar dugu, erdibidera iritsi behar da, bi aldeak konformatuko garen lekura. ■■■



"Harro egotekoa da autismoari Gipuzkoan ematen zaion erantzuna"

Eguneko zentroa eta bi etxebizitza martxan ditu ekainetik Azpeitian Gautenak, autismoaren espektroko nahastea duten senideen elkarteak. Felix Arregi (Azpeitia, 1963) da Gautenaren Etxebizitza zerbitzuaren arduraduna. "Zoratzen" daudela dio Arregik Azpeitian izan duten aukerarekin.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Mailo Oiarzabal eta Alex Berasategi**.

Noiz eta nolatan iritsi zinen zu Gautenara?

Elkarte hauetan oso ohikoa izaten den moduan hasi nintzen. Filosofia ikasten ari nintzen, Donostian, eta ezagutzen nuen pertsona batek aipatu zidan autismoa zuten haurrentzako udalekuak egingo zituztela lehen aldiz. Orduan sartu nintzen, begirale gisa, benetan autismoa zer zen ere jakin gabe. Ez familian, ez inguruan, inoiz ez nuen ezagutu autismoa zuen inor, eta autismo hitza bera ere oso gutxi entzundakoa nintzen. 1980ko hamarkadaren hasierako urteak ziren; elkartea bera ere hasi berria zen. Gaueko txandak egiten hasi nintzen, eta gogoan dut lehen esperientzia. Gurasoek ekarri zituzten haurrak udalekuetara, eta minibus batean sartu zituzten umeak; guraso guztiak autobusaren kanpoan zeuden haurrak agurtzen, eta ikusten nuen haur horiek ez zutela erantzuten. Harritu egin nintzen erantzun harekin: gurasoen aldetik erantzun emozionala izugarria zen, eta udalekuetara zihoazen haur haiek ez negarrik, ez beldurrik, ez pozik eta ez emoziorik adierazten zuten.

Gautenaren lehen urratsak ziren haiek, beraz?

Bai. Urte batzuk bazeramatzaten, 1978an sortu zelako elkartea. Autismoaren identifikazioaren eta diagnostikoaren arloa hasi ziren lantzen lehendabizi, baita zerbitzuak antolatzen ere; hamar-hamabost umerekin eskola bat jarri zuten martxan aurrena, esaterako. Diagnostikoan sakontzen joan ahala, gero eta kasu gehiago identifikatzen joan ziren. Hasierako haur haiek hazten zihoazen neurrian, behar berriak sortzen joan ziren, eta horiei erantzuten joatea izan da elkartearen helburua harrezkero. 1989an ireki genuen lehen etxebizitza, Erreterian, sei pertsonarentzat, eta 1992an helduentzako lehen eguneko zentroa. Horiekin batera, familiei zuzendutako laguntzak ere joan ziren garatzen; asteburuetako atsedeen zerbitzua izan zen lehendabizikoa, familiek egun batzuetan arnasa har zezaten.

Gautenaren ibilbideko urte gehienak elkartean egin dituzu, Gautenaren eboluzioa bizi izan duzu. Gaur egun, zer da Gautenak egiten duena?

Esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera hasi ginela bidea egiten. Horrek esan nahi du garai batean Madrilera joan behar izaten zela laguntzak eskatzera eta. Eusko Jaurlaritza eratu zenean, berriz, bertako erakundeekin batera hasi ginen zerbitzuak garatzen. Alde horretatik, hiru iturri ditugu: Osakidetzarekin egiten ditugu diagnostikoa eta familietan klinikoki egiten den esku hartzea; Foru Aldundiarekin zerbitzu sozialak, hau da, etxebizitzak, eguneko zentroak edota familien laguntzarako aisialdia; eta Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin, gela egonkorak. Azken horiei dagokienez, ez dugu eskola berezirik, gela egonkorak baizik; hiru-bost ikasle txertatzen ditugu ikastetxeetan, hezkuntza sare guztian. Nahiko sare handia daukagu, eta ikasleak beren herrietan edo inguruan txertatzen saiatzen gara; Donostian daude sareko ikastetxe gehienak, baina



Zarautzen, Arrasaten, Elgoibarren... ere baditugu. Gautenaren zerbitzuetara iristen direnak Osakidetzatik, Aldunditik edo Hezkuntza Sailetik bideratuta etortzen dira. Gipuzkoan gu gara autismoaren diagnostikoak egiten ditugunak, gure psikologo eta psikiatra taldearen esku dago hori; diagnostikoarena doako zerbitzua da. Baina zerbitzuak diruz lagunduta daude, eta horiek jaso ahal izateko, ezinbestekoa da erakunderen batek onartuta izatea. Diagnostikoa gure esku dagoenez, badakigu Gipuzkoan autismoa duten zenbat haur dauden eta horiek zer behar dituzten edo izan ditzaketen; ikuspegi oso bat ematen digu horrek. Pertsona bakoitzaren beharrak desberdinak izaten dira. Guk egiten duguna da 24 ordutan pertsona batek izan ditzakeen beharrak asetzeko zerbitzuak antolatzea: lana, hezkuntza, aisialdia eta etxebizitza. Hortik aurrera, pertsona edota familia bakoitzak hartzen du behar duena; batzuek eskaintzen dugun zerbitzu osoa behar dute, eta beste batzuek, zati bat.

Kasu eta behar desberdinak daudela diozu, baina zein dira, gaur egun, Gautenan dauden familien behar nagusiak?

Behar izaten duten aurreneko gauza da autismoa zer den azaltzea, beren seme-alabek zer duten jakitea. Diagnostikoa baieztatutakoan, berriz, lehenbailehen esku hartzea eskaintzea da garrantzitsua, horrek asko lasaitzen ditu familiak. Diagnostikoa izatea garrantzitsua da, baina askoz ere garrantzitsuagoa da erantzun bat lehenbailehen ematea, eta horretan saiatzen gara gu.

Familiek jakin dezaten ez daudela bakarrik, badagoela babes sare bat?

Hori ere bai. Lehen egitekoa izaten da gurasoei behar dituzten azalpen guztiak ematea, gauzak nola diren jakinaraztea. Gautena sortu zenetik gaur arte izan duen garapenarekin, jendea irakutsi diogu badugula erantzuna; eta badugula erantzuna, gainera, behar izanez gero, bizitzako etapa guztietarako. Uste dut horrek lasaitasun handia ematen diela familiei: zaharrenek, gurekin aspaldi hasi zirenek, besteei irakutsi eta lasaitasuna ematen diete; gauzak asko aldatu direnaren erakusgarri da hori. Beste erkidego batzuetako egoerarekin alderatuta, hemen erantzuna integralagoa da. Gipuzkoan oso harro egon beharko genuke autismoari ematen zaion erantzunarekin.

Gautena lehen pausoak ematen hasi zeneko familiek bizi zuten errealitatea eta gaur egungoena oso ezberdinak al dira?

Ez dut esango gaur egun etortzen direnek dena lotuta dutela, baina erantzun zabal bat daukate behintzat, behar desberdinei erantzuteko. Garai batean, dena ari zen egiten eta dena zegoen egiteko.

Eta gizarteari dagokionez?

Duela 40 urte, autismoa bera ez zen ezagutzen; oso-oso arraroa zen, eta jendea hori azaltzea oso zaila zen. Diagnostikoari dagokionez ere, asko aldatu dira gauzak. Autismoa duten pertsonen artean, batzuek desgaitasun intelektualak dute, baina beste batzuek ez, eta horrelakoak identifikatu egiten dira gaur egun, garai batean ez bezala.

Horrek ekarri du, gainera, autismoa dutenen kopurua handitzea. Era berean, esan dezakegu autismo kasuek gora egin dutela. Gaur egun, Gipuzkoan, 140-150 haur ari dira iristen urtero Gautenara.

Kasuak ugaritu dira ala gaur egun gehiago azaleratzen da eta garai batean ez hainbeste?

Bai, orain hobeto identifikatzen da autismoa, baina horrek bakarrik ez du justifikatzen hainbeste jende etortzea. Autismo gehiago dago. Izango dira arrazoi genetikoak, izango da haurrak beranduago izaten ditugulako... Badira zenbait arrazoi, baina diagnostikoa hobetu dugula jakiteak ez du justifikatzen horrenbeste kasu egotea. Gipuzkoan diagnostikoa egitera 150 ume etortzea... Kopuru handia da.

Gipuzkoan autismoaren gaiari ematen zaion erantzuna azpimarratu duzu lehen.

Gipuzkoan familiek egin duten lana eta erakundeek eman duten erantzuna oso garrantzitsuak dira, eta ez bakarrik autismoaren espektoari dagokionez; garun paralisia edota desgaitasun intelektuala dutenen elkarrekin ere oso garatuta daude: Atzegi, Aspace... Gipuzkoak erantzun egin du, eta gizarte gisa ere bai. Azken batean, gure dirua baliatuta ematen dira erantzun horiek, eta dirua gizarte jardun horietarako ematea adierazgarria da. Gipuzkoan nabaritzen da gauzak egiteko erraztasun bat daukagula, eta Azpeitiko bada horren adibide. Txalogarria da udal batek autismoarekin horrelako apustua egitea, horrelako sailak eta metroak ematea. Ez da bakarrik gure lana, gizartearena ere bada, eta horrek badu bere eragina maila politikoan.

Inklusioan aurrerapausoak eman dira azken hamarkadetan egindako lan horren ondorioz. Zer dago hobetzeko arlo horretan? Zer pauso berri eman daitezke?

Inklusioa, berdintasuna... Hitzak jartzen ditugu, denok erabiltzen ditugu eta bat gatoz horiekin. Teorian, horiek betetzea nahi dugu denok, eta egia da ibilbide handia egiten ari dela zentzu horretan. Baina lasaitzen baldin bazara, borrokatzeari uzten badiozu, egindako hori behera etortzen da berehala. Beraz, erronka horri eutsi egin behar diogu beti, eta oso tinko egon behar dugu hori aurrera eramateko. Egia da Gipuzkoan oso erantzun ona ematen ari zaiola autismoari, baina horiek baliabideak dira. Zuk eskolan jar ditzakezu laguntzaile batzuk, gela egonkor bat, baina horrek ez dizu bermatzen autismoa dutenek jolastokian edo elkartasuna behar dutenean laguntza hori izango dutela. Beraiekin bizita eta beraiekin egonda lortzen da hori, eta gure erronka horixe da. Guk ez dugu nahi gure etxebizitzetan bizitzea bakarrik; hemen lo egingo dute, telebista ikusiko dute, baina bizi, kalean bizitzea nahi dugu. Leihotatik begira izango ditugun horiek egoera ulertzea nahi dugu, autismoa dutenei gertatzen zaiena ulertzea, eta hori ere bada gure lana.



Azpeitiko Gautenaren lokal berriak.



Alderantzizko integrazioa deritzoguna lantzen dugu eskoletan: gela arruntetako ikasleak etortzen dira gure gela egonkorretara, eta tutoretza lan bat egiten da. Horrekin lortzen dugu beste ikasleek autismoa duten ikasleak ulertzea, autismoa duten pertsonak gauzak zergatik egiten dituzten jakitea: ez dituztela egiten besteak izorratzeagatik, ezta erotuta daudelako ere; zailtasun batzuk dituztela harremanetarako, keinu batzuk ez dituztela ulertzen guk bezala... Eskoletan egiten den lan hori inbertsio bat da etorkizunera begira. Jarrerak nahiz pertsonetikiko elkartasuna ez dira erosten, horiek landu egin behar dira, eta lan horrek egunerokoa behar du izan, erlaxatu gabe.

Bailara honetan Marea Urdina elkarte lan handia egiten ari da norabide horretan. Nola baloratzen duzu haien lana?

Familietatik sortutako esperientzia eta dinamika da Marea Urdina, eta horrek meritu izugarria dauka. Izugarria da gurasoek sentitzen dutena adierazteko duten askatasuna, seme-alaben bidez inklusioa bultzatzeko egiten duten lana, baita bide horretan lortzen dituzten erronkak ere. Marea Urdinaren adibidea esanguratsua da, Gipuzkoan gurasoek eta familiek beren seme-alabak edo senitartekoak gizartean txertatzeko zer rol jokatzen duten ikusarazteko. Hori ez da egiten edozein lekutan. Hemen sortu da Marea Urdina, Hernanin beste elkarte bat dago, Hondarribian ere bai... Badira esperientziak, eta horiek martxan jartzen dituzten dinamikak eta proposamenak egundokoak dira; lortzen dituzten emaitzek eragin izugarria dute. Gure aldetik, ahal den laguntza guztia eskainiko diegu, azken batean, beraiek egiten duten lanak gudan ere eragin handia duelako. Uste dut Marea Urdinakoentzat ere albiste ona izango dela Azpeitian zerbitzu hauek martxan jarri izana.

Zu Gautenaren etxebizitza zerbitzuaren arduraduna zara. Noiz hartu zenuen ardura hori?

1989an jarri genuen martxan lehendabiziko pisua, orduetik nabil zerbitzu horretan lanean, eta zerbitzuarekin batera egin dut bidea.

Zein da etxebizitza zerbitzuaren helburua edo egitekoa?

Familien ikuspegitik, beren seme-alabei bizitzeko aukera bat ematea da, arrazoi ezberdinengatik behar hori sortzen zaienean, eta etorkizunera begira, jakiteko beraiek ez daudenean pertsona hori non eta zer baldintzatan biziko den. Harremana sortua dago, pertsona hori non egongo den badakite, ondo egongo dela dakite, eta uste dut hori oso lasaigarria dela familientzat. 1989tik hona pixkanaka joan gara zerbitzua osatzen; zazpi etxebizitza ditugu, eta Azpeitiko irekita, momentu honetan etxebizitza zerbitzuaren itxaron zerrenda hutsik gelditu da.

Non ditu Gautenak etxebizitza horiek?

Bost ditugu Donostian, beste bat Urnietan, eta zazpigarrena da Azpeitiko.

Beraz, Donostiatik edo Donostia ingurutik urrutiago martxan jarri duzuen lehendabizikoa da Azpeitiko.

Hala da, bai. Kontuan hartu behar da Donostia eta Irun tartean bizi direla Gipuzkoako biztanleen %70 inguru. Azpeitian eguneko zentroa eta etxebizitzak irekita, berriz, zonalde horretatik kanpo bizi diren hainbat helduri behar dituzten zerbitzuak eskurago jartzea lortu dugu.



Hori izango al da zuen erronketako bat? Autismoa duten gipuzkoar guztiei eta haien familiei zerbitzuak eskurago jartzea?

Etxebizitzetara dagokienez, esan bezala, momentu honetan itxaron zerrenda husik dugu. Baina eguneko zentrotara dagokienez, behar genukeena baino jende gehiago daukagu zentrotan; adibidez, hogeitaz laguntzat pentsatutako zentro batzuetan 30 daukagu. Horregatik, garapena egiten ari gara zentro berriak sortzeko, behar horri erantzun egokiagoa emateko. Etxebizitza familiak eskatu behar du, baina eguneko zentroak hezkuntzan ibilbidea bukatzen dutenentzat behar ditugu. Hezkuntzan identifikatuta ditugunez, badakigu gutxi gorabehera une bakoitzean zer behar sortuko zaizkigun, eta horrek planifikatzeko aukera ematen digu.

Urtero gehitzen diren autismo kasu berriak kontuan hartuta, zein izango da zuen zerbitzuaren hurrengo erronka?

Epe motzean, aurreikusten dugu eguneko zentrotan eskaera bikoiztu egingo dela. Etxebizitza eskaerak ere gora egingo du, baina esan bezala, kasu horretan, beste faktore batzuk sartzen dira tartean. Gutxienez beste lau etxebizitza eta beste lau zentro eguneko zentro beharko ditugula aurreikusten dugu epe motzean, dezenteko beharra sortuko baita. Zerbitzu berriak Gipuzkoan zehar kokatzen joatea da asmoa, eta ari gara aukerak aztertzen Zumarragan, Elgoibarren... Aldundiarekin elkarlanean aritzen gara, eta harekin batera egin behar dugu bidea, haien planifikazioak eta gureak uztartzeko.

Koronabirusaren etorrerarekin sortu den egoera, bereziki hasierako konfinamendu hertsia, autismoa duten pertsonentzat eta haien etxekoentzat oso gogorra izan zela aipatu izan da. Nola bizi izan duzue egoera zuen zerbitzuak erabiltzen dituztenekin?

Bi gauza esan nahi nituzke kontu horretaz. Alde batetik, erakutsi digu genuen ereduak, etxebizitzetara zarpiko talde txikietan antolatzea eta abar, egokia dela koronabirusarena bezalako egoerei aurre egiteko; babes neurriak hartzea erraztu digu horrek, burbuilak mantentzea ere bai, eta gaitzaren eragina txikiagoa izan da gurean. Bestaldetik, gure erabiltzaileak urtebete egin dira etxetan, eguneko zentrotara joan gabe; zerbitzua egokitu genuen, eta eguneko zentrotako langileak ibili dira etxetara joaten. Horrek erakutsi digu, era berean,



Arregi (eskuinean) Iñaki Garciarekin. Azpeitiko zerbitzuen koordinatzailea da Garcia.

**"GAUR EGUN,
GIPUZKOAN,
140-150 HAUR ARI
DIRA IRISTEN URTERO
GAUTENARA"**

**"EZ DUGU NAHI
ETxebizitzetan
BIZITzea BAKARRIK;
KALEAN BIZITzea
NAHI DUGU"**

zerbitzuaren malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna. Gure etxeetan bizi diren pertsonen jokabideekin-eta ez dugu arazo handiegirik izan, baina badakit familiekin bizi direnen artean arazo handiak izan dituztela. Dena den, Gautenaren etxebizitzetan ere, uda ondoren okerragoa izan zen egoera; errealitateak eragindako nekea antzematen hasi ginen erabiltzaileen artean. Astebetez edo hamabost egunez beren etxeoengana joateko aukera izan zuten askok, eta udazkenean berriro itxialdiak etorri zirenean, nabarmenagoak izaten hasi ziren urduritasuna eta nekea. Etxekoak gure etxebizitzetan dituzten familientzat bereziki gogorra izan da azken urtea, ezin izan dutelako beren senideekin egon; bideo deiak-eta egiten genituen, baina jakina, ez da gauza bera. Hartutako neurriak ebaluatzerakoan hitz egin izan dugu horretaz –aipatu genuen gehiegizkoak ote ziren, atea gehiago zabaldu behar ote genituen–, baina beldurra hezurretaraino sartuta genuen. Koronabirusa sartzen denean, ondorioak izugarriak izaten dira, eta gurean oso zaila da maskarena edo eskuetako higienarena bezalako neurriak zorrotz betetzea. Bagenekien behin gaitza iritsiz gero, ehuneko ehunean sartuko litzatekeela; gainera, gurekin bizi diren pertsona batzuk arrisku taldeetakoak dira, eta gure ardurapean daude. Hori guztia azaltzen saiatu gara beti familiei, haientzat egoera oso gogorra dela jakin arren. Eta, azkenean, oso kasu gutxi izan ditugu; pisu batean izan genituen positiboak, eta beste guztiak garbi mantendu dira. Eta hori Gipuzkoan oro har izan dugun egoerarekin... Langileak ere kontu handiz ibili direla eta zaindu egin direla esan nahi du horrek.

Haurtzarotik helduarora erantzun integrala eskaintzen die Gautenak Gipuzkoan autismoa duten pertsoneri. Elkarteak sortu zenean umeak ziren haiek adinean gora joan ahala, zahartzaroen zer eta nola eskaini izango al da Gautenaren hurrengo erronka nagusia, ezta?

Hori da momentu honetan daukagun erronka kezagarriena. Zorionez, bizi itxaropena denontzat ari da luzatzen, eta autismoa duten pertsonentzat ere bai. Badauzkagu jada 60 urte dituztenak, 55ekoak... Horiei zer erantzun eman behar diegun ari gara pentsatzen; lehenik eta behin, non bizi behar duten. Egokitu al ditzakegu daukagun etxeak? Jendeak zer esaten du normalean? Bizi den etxean egon eta hil nahi duela; hori da %90ek esaten dutena. Beraiek ere horrela nahiko dutela pentsatu eta horretara egokitzen saiatu beharko genuke. Bestalde, zer bizitza mota eskaini behar diegun hausnartu beharko genuke. Erantzun sanitario bat beharko dute, seguruenez, adinak ekartzen dituen zailtasunei aurre egiteko, eta maila sozialean zer bizitza mota eskaini behar diegun ere pentsatu beharko genuke. Eredu hori definitzen ari gara. 80-90 urteko autismodun pertsonen esperientziarik ez dugu, eta hori da beste kezka bat. Baina, guretzat, pertsona horiek gurekin bizitzea eta gurekin hiltzea izango litzateke erronka nagusia. Gertatu zaizkigu horrelakoak, eta familiekin asko eskertu izan digute. ■■■■

- Birgaitze energetikoak
- Irisgarritasuna - Irogailuak
- ITE konponketak
- Arriskuak kentzea
- Urbanizazioak
- Estalkiak
- Diru laguntzen kudeaketa



NON DAGO UZTARRIA?



Josune Bastida Ezeiza da hila-
bete honetako irabazlea.



Uztaileko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 40. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Josune Bastida Ezeiza bazkidea izan da irabazlea. Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com e-postara irailaren 10a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira. **Saria:** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
Ezkur URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Diruditena baino askoz gogorragoak dira mendiko bizikleta jaitsierak"

NAROA ARANBARRI MENDIKO TXIRRINDULARIA

Mendiko bizikleta jaitsieretan aritzen da Naroa Aranbarri. Txikitatik datorkio zaletasuna, eta kirolak sortzen dion zirrarak ez dio itzaltzen horretan jarraitzeko grina. Emakume gutxi aritzen da bizikleta jaitsieretan, baina azpeitiarra gustura sentitzen da mundu horretan. Orain, Lagun Onak BTT sortu dute Azpeitian.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Ohikoa da Naroa Aranbarri (Azpeitia, 2003) bizikleta gainean ikustea Azpeitiko kaleetan barrena. Haren bizikletari begira gelditzen dira gaztetxo asko, eta hori ere ez da arraroa, Aranbarrirena ez baita bizikleta arrunta. Mendiko bizikleta jaitsieretan aritzen da azpeitiarra, eta gaztea izanagatik, badu eskarmentua.

Umetatik datorkio bizikletarako zaletasuna Aranbarriri. "Aita txirrindularitza aritutakoa da, eta esango nuke hari esker piztu zitzaizkidan bizikletan aritzeko grina", kontatu du. Hala ere, bizikletara zaletu aurretik futbolearen aritzen zen, Lagun Onak taldean. Aitak mendirako zaletasuna zuenez, harekin mendira joaten zela gogoratzen du Aranbarririk. Egun batetik bestera, txirrindularitza praktikatzeko hasi nahi zuela esan zion aitari, eta hark, bere esperientzian oinarrituta, txirrindularitza "oso kirol gogorra" zela eta ondo pentsatzeko esan zion. Etxean entzundakoak kontuan hartu zituen arren, aita ez

zen Aranbarririk inguruan zuen bizikletazale bakarra. "Eskolan banituen mendian bizikletaz ibiltzea atsegin zuten lagunak, eta haiekin hasi nintzen mendiko jaitsieren mundura hurbiltzen eta kirol hori probatzen. Esango nuke DBH 3an piztu zitzaizkidan bizikleta jaitsietarako grina", gogoratu du.

Lagunartean lehen mendi jaitsierak eginda, bete-betean murgildu zen BTT munduan Aranbarri. "Gure kasa joaten ginen mendira bizikletekin, Arauntza aldera eta; gehienbat herritik gertu dauden txokoetara igotzen ginen, handik bizikletaz jaisteko. Gerora hasi nintzen lehiaketetan parte hartzen", azaldu du. Hark dioenez, prozesua "pixkanaka-pixkanaka" egin du, "kirol horren bueltan sortzen den giroak animatuta". Aranbarriren etxean "ondo" hartu zuten berria.

Babeslearen laguntza

Bizikleta jaitsieretan parte hartzeko ezinbestekoa da federatuta gotea, eta hori ere egin zuen





Orduz geroztik, estuki lotuta egon dira Oiartzun Bike eta Aranbarri, eta azpeitiarrak dio, babesle horri esker ez balitz, bere ibilbidea ez litzatekeela bera izango. “Oiartzungoek ikaragarri lagundu didate. Kirol hau praktikatzeko material jakin bat behar da, eta hori gabe ez dago modu berean lehiatzerik. Mendi jaitsieretan garrantzi berezia dute bizikletak eta materialak, eta zentzu horretan, asko laguntzen didate”, azaldu du. Hala ere, nabarmendu nahi izan du Oiartzun Bike ez dela izen edo marka bat soilik: “Horren atzean pertsonak daude, profesional ez osatutako taldea. Asko lagundu didaten pertsonak dira, eta haiei esker trebatu naiz mundu honetan. Bereziki, pertsona baten lana azpimarratu nahiko nuke, Manurena; nire mekanikoa dela esan daiteke. Beti

Aranbarrik. Federatu osteko aurreneko urtean Azpeititik kanpoko talde batekin aritu zen, orduan herrian ez baitzegoen BTT elkarterik.

Hastapenez galdetuta, babeslearen garrantzia azpimarratu du gazteak. “Elkartea eta babeslea ez dira gauza bera”, nabarmendu du; izan ere, orain arteko ibilbidean leku handia izan du haren babesleak. “Egun batean, mendi jaitsiera bat hasi aurretik, autora hurbildu eta sorpresa batekin egin nuen topo. Kamiseta bat zegoen han; Oiartzun Bikeko kamiseta. Ordurako nik asko miresten nuen Oiartzun Bike, eta sorpresa hura oso pozgarria izan zen niretzat”.

Naroa Aranbarri

- **Jaiotze data:** 2003ko abenduaren 7a.
- **Ikasketak:** Batxilergoa amaitu berri.
- **Zaletasuna:** Mendiko bizikleta jaitsierak.
- **Mendi bizikleta zalea izango ez banintz...** Mendian ibiliko nintzateke.
- **Eskolatik ateratzean atsegin dut...** Lagunekin egotea eta bizikletan ibiltzea.



egon da niri laguntzeko prest, eta haren lana ezinbestekoa izan da orain arteko ibilbidean”.

Neska bakarra mutil artean

Gaur egun, oraindik orain, ez dira asko mendiko bizikleta jaitsieretara animatzen diren emakumeak, baina Aranbarrientzat kirol horren bueltako giroa sekula ez da arrotza izan. Zaletasunak elkartu zituen Aranbarri eta gaur egun Lagun Onak BTTn aritzen diren beste hainbat gazte, eta elkar lagunduz eta elkarrekin gauza berriak egitera animatuz trebatu dira mendian. Aranbarri da Azeptitiko taldean aritzen den neska bakarra, baina argi dio: “Beti sentitu izan naiz eroso mutil artean, eta neska bakarra izatea ez da oztopoa izan. Hori bai, poz hartuko nuke beste neskaren bat kirol hau praktikatzen animatuko balitz”. Hark dio bizikleta jaitsierak ez direla genero bateko edo besteko kirola, baina aitortu du “kirol arriskutsua” dela.

Txapelketetan edo lehiaketetan egiten dituzten jaitsierak hiru eta lau minutu artekoak izaten direla kontatu du gazteak, baina horietan parte hartzeko behar bezala entrenatuta egotea “ezinbestekoa” dela azpimarratu du: “Lagunek askotan zera esan izan didate: ‘Tira, jaitsierak minutu bat bakarrik irauten badu, ez da horren zaila izango’. Eta hori ez da horrela. Kanpotik badirudi ez dela kirol nekeza, baina bada.

Diruditena baino askoz gogorragoak dira mendiko bizikleta jaitsierak”. Haren arabera, horregatik da garrantzitsua entrenatzea, baita babes materiala izatea ere.

Aranbarrik bere kasa entrenatu izan du urte hauetan zehar, etxean nahiz mendian. “Indarra, abiadura eta teknika lantzen ditugu. Elite mailako kirolariek badituzte entrenatzaile pertsonalak, baina gu geure kabuz moldatzen gara. Orain, gainera, Lagun Onak BTTko kideok astean bi-hiru entrenamendu egiten ditugu”, azaldu du.

Duela gutxi jaio da Lagun Onak BTT, Azeptitiko mendi bizikleta taldea; izan ere, azken urteetan herrian indar handia hartu duen kirola da mendiko jaitsierena. Aranbarrik gogora ekarri nahi izan ditu Garmendikamp nahiz hura sustatu zuten gazteak. “Garmendikampi esker gaztetxo asko animatu da kirol hau probatzera”, esan du. Gaur egun, Aranbarri ere Lagun Onak BTTko kidea da, eta “ilusioz” bizi du elkartearen sorrera. “Orain gure helburua da entrenatzea, taldea handitzea, kirola herrian errotzea eta kirolari indarra ematea”, adierazi du. Etorkizunaz galdetuta, kirola praktikatzen jarraitzeko asmoa duela esan du, nahiz eta denbora luze “desmotibatuta” egon den pandemia tarteko. “Hala ere, honetan jarraituko dut, lasterketetan parte hartzen, formatzen eta horrenbeste atsegin dudana kirolaz gozatzen”. ■■■


ITZALA

Zein da txori-luzerri honen itzal zuzena?



Zein da bidea?

Lagundu banpiroari bere gaztelura heltzen. Laukiz lauki egin behar du bidea, baina lore, fruta eta hostoetatik pasa gabe. Mugitu ezkerreara, eskuinera, gora edo behera baina sekula ez diagonalean.



asmatu

Ba al dakizu zer dioen esaterak?

• Inor ez da ...

- 1 ... bat-batean baima bihurtzen.
- 2 ... norberaren haurra bezain eder.
- 3 ... amaren bularrean aspertzen.
- 4 ... ikusia jaiotzen.
- 5 ... amarekin harrotzen.
- 6 ... behakatik matematika zale.
- 7 ... ondo jas gabe inora heltzen.
- 8 ... ametsik egin gabe bizi.



Eta zer dio beste honek?

• Batea esan ...

- 1 ... eta Moby Dick agertu.
- 2 ... eta belea izan.
- 3 ... eta zozoa etorri zait hegan.
- 4 ... eta amak batea eman.
- 5 ... gezurra izan eta lagunak antzeman.
- 6 ... eta ondoren ezin etzan.
- 7 ... eta arkanbelea eman.


MOZORRO FESTA

Margatu irudiak zure gustura.




Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRASTE DELAN ERREALTATE ZATIYE



ERREALTATE OSQUE



Gizarte nerabea



IMANOL AMIANO

Gizarte nerabea. Irratian entzun nuen zeharka kontzeptua. Udako ikastaro horietako bat eman (behar) zuen emakumeak argitu zidan entzundakoa:

modernitateak gaztetasuna gurtzea ekarri bazuen, posmodernitateak nerabetasuna eredu duen gizartea ekarri digula;hots, oso gazteen edertasuna da edertasuna, eta horri eutsi behar zaio, kosta ahala kosta. Gimnasia joan behar da. Seme-alabek bezala jantzi eta haien musika entzun behar da, haiek bezala hitz egin eta haiek bezala jokatu behar da. Bestela, hireak egin dink, zaharra.

Dagoeneko orrazteko ilerik ez daukagenean, mitxelinak ezin disimulatu habilenean, lentillak eta belarriko aparatuek behar ditunanean, alferrik habil. Helduok lekurik gabe geratu gara: nerabeak gara, kolpetik, zahar bihurtzen garen arte; ezkutatu beharreko estatus lotsagarri berria. Baina bitartean, dena libre. Edo ia-ia.

Frinkielkraut filosofo frantziarraren arabera, garuneko eskuineko hemisferioak ezkerrekoari gain hartu dio; hitzezko komunikazioa argazki, *sticker* eta *emoji* bidezkoak ordezkatu du, eta heziketaren ildotik garatzen ditugun arrazoiak eta logikak fantasiari, sormenari eta irudimenari utzi dio bidea; gaitz erdi hala balitz, baina irudimen,

fantasia eta sormen gutxi ikusten dut zenbait portaera oldarkor, buruarin eta arduragabetan. Esaterako, Zezen Beltzek antolatutako azken errektori jaialdian etxeko balkoitik ikusi nuena: gazte kuadrilla bat, Wanda Metropolitanotik irteten ari den Frente Athleticoko *hooligan* sorta balitz bezala, eskuak gora, oihu-kantu koordinatuak egiten zein inguruan harrapatzen zuten guztia jaurtitzen –teilatuan zegoen, oraindik, lerro hauek idazterakoan, larrialdietarako irteerako errotulua; harmailetaraino iritsi zen garagardo lata jasoko zuten–.

Hori guztia, jakina, ez dela berria pentsatuko duzue. Eta hala da. Samuel gaztearen eraiketaren aurkako manifestazioen harira –poliziaren jarduna bai ez dela aldatu: faxistak, naziak babestu eta gainerakoak jipoitu–, Eñaut izeneko mutil batek Twitterren 2013ko saninazioetan gertatu zitzaionaren inguruan kontatutakoa adibide: mutil-lagunarekin txosna baten

**FANTASIA ETA SORMEN
GUTXI IKUSTEN DUT
ZENBAIT PORTAERA
OLDARKOR, BURUARIN
ETA ARDURAGABETAN**

zegoela, txupito edalontziak jaurti zizkietela, auskalo nondik, eta zerbitzaria –irribarrea ezpainetan– ezjakinarena egiten zuela, atzean, letra larriz, “ez da eraso sexistarik ez homofoborik onartuko” zioen leloa zuelarik. Beharbada, ordea, koronabirusak dena areagotu du: etxean sartu gintuzten, tabernak itxi eta maskarak derrigortu zizkiguten... Gizarte solidarioagoa izango genuelakoan geunden, baina gero eta berekoiagoa delakoan nago; indartsuago irtengo ginela, baina bortitzago baino ez dugu irten. Nire askatasuna gauza guztien gaineratik, baita zure gaineratik ere. Dena nahi dut. Eta berehala. Sinpleagoak gara, eta bazterrekoak ziruditen pentsaerak eta jokabideak indarrez berragertzen ari dira, jaso dugun, jasotzen duten heziketarekin bete-betean talka egiten dutenak: arrazakeria, xenofobia, matxismoa edota homofobia.

Txosnarik gabe, baina saninazioak hemen ditugu. Ez festak. Neuri ere gustatzen zaizkit –akabo, ba!–, eta oporrak hartu berri ditut. Horregatik, ez dizuet ezer agintzen –besterik ez genuen behar–, kontraesanak handik edo hemendik agertuko baitzaizkit. Uztarrarian uso, kalean otso. Zer nahi duzue, ba, oraindik nerabea baino ez naiz eta! ■■■

Ia ehun urteko oroigarrien etxola

TESTUA: IHINTZA ELUSTONDO

ARGAZKIAK: IHINTZA ELUSTONDO ETA UTZITAKOAK

Mundu guztian ezaguna da Loiola. Bertan kokatzen den santutegia eta San Inazio tarteko ezagutzen dute leku hori gehienek, eta asko eta asko dira beren oporraldia gune hori bisitatzeko aprobeztatzen dutenak. Santutegia ikusteko, San Inazioren bizitzaz gehiago jakiteko nahiz paisaia berdez gozatzeko aukera ematen du Loiolak, baina gune ikusgarri horren erdian, badira erdi disimuluan dauden bi eraikin: oroigarrien etxolak. Askotan oharkabean pasatzen diren arren, urte pila bat daramatzate leku horretan, eta hainbat eta hainbat lagunek erosi dituzte opariak horietan.

Gaur-gaurkoz, itxita dago etxola horietako bat, baina besteak zabalik izan ohi ditu ateak, eguna joan eguna etorri. Han barruan egoten da Oskar Juaristi (Azpeitia, 1968), mundu osoko bisitariei oroigarriarik gustukoena aukeratzen laguntzen. Egun, hura arduratzen da negozioaz, baina familiako beste kide batzuek hasi zuten saltokiaren ibilbidea. Lekukoa bata besteari pasatuz, azkenean Juaristirengana iritsi da etxolaren ardura.

Eraz esaten da, baina ia ehun urte daramatza etxolak gune horretan. “1926 inguruan zabaldu zuen denda Juan Etxezarretak, nire amonaren anaiak; *Tio Juanito* deitzen genion. Hark erloju denda zuen Azpeitian, eta ondoren, kioskoa zabaldu zuen Loiolan”. Gizon “ekintzailea” zen hura, Juaristiren arabera. “Hura ohartu zen udan turistak ibiltzen zirela Loiolan, jendea etortzen zela santutegia ikustera, eta pentsatu zuen han egon behar zukeela dendaren batek edo; izan ere, orduan ez zegoen ezer. Hari bururatu zitzaion zerbait ipintzea, bertako gauza batzuk saltzeko eta. Baimen batzuk eskatu zituen udalean nahiz aldundian, eta pixkanaka, horrelaxe hasi zen”. Juanito zahartu zenean, Juaristiren ama, Kristina Azpeitia, hasi zen dendan lanean. “Berrogeitaka urtean aritu zen han, eta gero ni sartu nintzen, soldaduska bukatu nuenean. Amarekin hasi nintzen, baina ama duela

“OSO ABERASGARRIA DA BESTE HERRIALDEETAKO JENDEA EZAGUTZEA”, DIO JUARISTIK

urte batzuk jubilatatu zen. Nik oraindik hemen jarraitzen dut”.

Esku aldaketak ez ezik, itxura aldaketak ere bizi izan ditu oroigarrien etxolak. Hasierako urteetan, egurrezkoa zen eraikina, baina denbora pasatu ahala, berritzea erabaki zuten. Zehazki, 1990-1991 urteetan eraberritu zuten, duela 30 bat urte. Juaristik ez zuen egurrezko etxolan lanik egin; izan ere, eraikina berri zutenean ekin zion Loiolako oroigarrien dendako abenturari.

30 urtez, “gustura”

Juaristik 30 urte daramatza Loiolako oroigarrien dendan lanean. “Eta gustura, gainera”, dio. “Gustatzen zait lana; izan ere, mundu osoko jendea etorri ohi da Loiolara, eta askotariko pertsonak ezagutzeko aukera izan dut urteotan guztiotan. Asiatik, Ameriketatik, Europatik, Espainiatik, Euskal Herrietik... Leku ugaritatik etorri ohi da jendea, eta oso aberasgarria da beste herrialdeetako jendea ezagutzea”.

Haren arabera, bisitariei “asko” gustatzen zaie Loiola. “Esaten dute santutegia oso polita dela, eta paisaia, zer esanik ez. Jendeari asko gustatzen zaio ingurune



berdea”. Loiola bisitatzera etortzen direnen artean, presa gehiagorekin ibili ohi dira batzuk, eta patxada gehiagorekin besteak, Juaristik azaldu duenez. “Eta lasaiago ibili ohi diren horietako zenbaitek tarte hori oroigarrien

etxolara sartu-irten bat egiteko aprobetxatu ohi dute”. Haren arabera, oraindik ere badago Loiola bisitatzera etorritakoan oroigarriren bat etxera eramatea atsegin duen jendea. “Bai, bai, bestela honezkero alde egin nuen etxola

honetatik”, dio barrez. “Gauzak normal zihoazenean, pandemia aurretik, ondo egiten nuen lana. Bizitzeko ematen du negozioak”.

Norberak bere gustuen arabera aukeratu ohi ditu opariak, eta denen gustua



Egurrezko etxola bota zen unea, duela 30urte. UTZITAKOA

egiteko saiakeran, askotariko oroigarriak ditu dendan Juaristik. Gehien saltzen duena zer den galdetuta, ez da gauza bat nabarmentzeko gai. “Gauza asko saldu ohi ditut: errosarioak, dominak, hozkailuetarako imanak, San Inaziori eta santutegiari buruzko gauzak...”. Erljioarekin loturarik ez duten apaingarriak ere baditu dendan, Euskal Herriarekin edo euskal kulturarekin zerikusia dutenak: lauburuak, kamisetak,

txapelak... “Egia esan, denetarik daukat”.

Zortzi hilabetez, zazpi egunez

Loiolako oroigarrien denda gehienetan zabalik egoten bada ere, ez dute urteko egun guztietan irekitzen. Neguan jende gutxi ibili ohi da Loiola inguruan, eta denboraldi hori atsedean hartzeko baliatu ohi du Juaristik. “Normalean, martxotik urri amaierara arte izaten dut gunea zabalik, zortzi bat hilabetez. Negua oso lasaia

izaten da, eta adi egon ohi naiz, inguruan norbait baldin badabil denda zabaltzeko, baina normalean, urteko sasoi horretan ez dut irekitzen. Izan ere, agian ez nuke berogailua ordaintzeko lain ere aterako. Hori bai, zabalik izan ohi dudana zortzi hilabeteetan, egunero irekitzen dut denda, astelehenetik igandera”.

Lanbide sakrifkatua da, beraz, urtean zortzi hilabetez astean zazpi egunez lan egin behar izaten duelako Juaristik.

Oskar Juaristi, Loiolako oroigarrien etxolan. ¡HINTZA ELUSTONDO

Goizez eta arratsalde zabaldu ohi du saltokia, santutegia irekita egon ohi den ordutegian, gutxi gorabehera. Astelehenetik igandera bera egoten da lanean, hutsik egin gabe. Haren arabera, jendea ohituta dago igandeetan jai egitera, baina berak ez du horretarako aukerarik. “Dena den, jende gutxi dabilela ikusten badut, igande arratsalde batzuetan jai hartzen dut”, dio. Gainera, batzuetan erreleboren bat egiten diote etxekoek. “Anaiak egin izan du lana arratsalde batez edo bestez nire ordeiz. Baina bestela, neu egoten naiz hemen egunero”.

Ordu pila bat ematen ditu Juaristik Loiolako etxolan. “Bizi osoan zenbat ordu pasatu ote ditut hemen sartuta? Mordoa”, dio. Dena den, “ohituta” dago. “Urteak daramatzat udan lan egiten eta neguan lasaiago ibiltzen; horretara moldatu naiz. Eta gustatzen zait bizimodu hau; izan ere, neguan

hotz egiten du, eta ni ez naiz hotz zalea. Beraz, gustura egoten naiz etxean lasai-lasai, opor batzuk ere egiten ditut... 30 urte daramatzat horrelaxe”. Lanbidearen alde gaziak eta gozoak gorabehera, berea “lan polita” dela dio Juaristik.

Denbora asko pasatu behar izaten du Juaristik mostradorearen atzean, eta eguna arintzeko, hainbat gauza egin ohi du: “Batzuetan musika entzun, besteetan zerbait irakurri... Gainera, beti tokatzen da ezagunen bat pasaeran, eta harekin berriketan egin, eta... Ondo moldatzen naiz; ohituta nago, neure saltsan”. Lana “lasaia” dela adierazi du, eta askotan “aspertuta” egoten dela aitortu du. “Beste batzuetan, berriz, denak batera etortzen dira... Horrelakoxea da nire lana”.

Izurriak, sekulako kolpea

Lana gustuko izanagatik eta zeregin horretan urte ugari

emanagatik, Juaristik “sekulako gainbehera” nabaritu du azken urte eta erdian. “Zer izan zen iazko urtea? Denda zabalik izan nuen denboraldi guztian lau autobus etorri ziren Loiolara, eta lehen, agian sei edo zortzi etortzen ziren egunero. Eta hori berriz itzultzerako... Jakin ezazu egoera hori berriro ezagutuko ote dugun ere. Orain arte oso jende gutxi ibili da; Aste Santuan ibili zen jende pixka bat, baina gero berriro agertu ziren mugak eta... Azken urte eta erdian oso gaizki gabiltza; eskariak eginda ditugu, baina horiei ezin buelta emanda ari gara... Oso eskas”. Dena den, udaren iritsierarekin, nabaritu du mugimendu pixka bat, baina kezka begiratzen dio uda sasoiari. “Lehen autobusak munduko edozein lekutatik etortzen ziren. Aurten ez dakit etorriko diren, ez dut uste, baina beno... ahal dena egingo dugu”. ■■■

Ohiturak



IONE GURRUTXAGA

Ikasturte amaieran, irailean eskolara itzultzean ezarri ziren protokoloei eta hasiera hartan irakasle eta ikasleen artean eragin zituzten buruhausteei buruz hizketan ari ginela, lankide batek bota zuen gizakia dela aldaketetara egokien moldatzen den animalia. Halaxe diote adituek ere, eta moldatzeko erraztasun horrek ematen omen digu ingurura egokitu eta bizitzan aurrera jarraitzeko gaitasuna. Eta, ikusitakoak ikusita, arrazoi izango dute: urte eta erdian gure bizitza goitik behera aldatu da, eta, hala ere, moldatu egin gara, eta zenbait kasutan, baita ohitu ere.

Konturatzeko heldu da abuztua, eta, aurten ere, noizbait marea izan zen hark nahikoa lan izan du ziprintinetara iristen, txistor usainik gabeko santotomasek, danbor hotsik gabeko sansebastianek, goizeko dianarik gabeko karnabalek eta Mantangorri eta auzoetako gainerako maskotarik gabeko festek bezalaxe. Iaz, garai honetan, etxetik irten berriak ginen, maskara janzten hasiak ordurako, eta, beldurak beldur, etxean igarotako egunak ahaztu, ingurukoekin elkartu, eta urterik urte gozatutako usadiora itzultzeko ahalegina egin genuen, nolabaiteko normaltasunera itzuli nahian. Baina gogoan dugu emaitza zein izan zen ere: ez al ziren

orduantxe hasi baheketa masiboak ohitura bihurtzen?

Urtebete joan da orduz gero, eta, bitarte horretan, egunez egun egokitu behar izan dugu gure bizimodua arau berrietara, eta, txarrenari ere onena aterata, gaitasun berriak ere garatu ditugu: maskarapean ezkutatuta pasatu dugu urtea, baina, halabeharrez, begiekin hitz egiten eta begiradak ulertzen ikasi dugu; lagunak terrazaren batean elkartu ahal izateko, eskola garaian ikasitako matematika taulak sekula baino bizkorrago erreparatu ditugu; herriatik irten gabe, mugarriz mugarri, turista gisa ibiltzeko gai izan gara, bai eta herriko altxorrek aurkitzeko ere; metro eta erdiko segurtasun distantzia begi hutsez neurtzeko abilezia landu dugu...

Gaitz batek ekarri gaitu gaur egun gauden egoerara, eta, ezinbestean, osasunak garrantzi handia hartu du guztion egunerokoan. Egunez egun, inguruko osasunaz kezkatzen ikasi dugu, “zer moduz?” benetan galdetzen, eta geure burua zaintzen ahalegindu gara, gehienbat maite

**GUSTURA KONTATUKO
NUKE HALABEHARREZ
IKASITAKO JOKAERA
ON GUZTIAK OHITURA
BILAKATUAK DITUGULA**

ditugunak zaintzeko, nahiz eta badirudien txertoa iritsi denetik geure zilborrari bakarrik begiratu eta urratsez urrats ikasitako guztia desikasi nahian gabiltzala.

Segur aski, ez da erabat egia izango, baina telebistako iragarki batek zioen ohitura osasungarriak geureganatzeko nahikoak direla 21 egun: hiru astez geure burua zerbait egitera behartuz gero, 22. egunetik aurrera natural aterako zaigula. Urte eta erdi pasatu dugu jada araurik arau, aurrean jarritako guztira egokitzen. Teoriaren arabera, nahikoa denbora gure bizitzetan egindako aldaketak ohitura bihurtu eta egunerokoan natural aplikatzeko.

Azpeitiak badu ohiturei eusten dien herriaren fama, usadioak belaunaldiz belaunaldi transmititzeko joera. Urtebete falta da datozen saninazioetarako, 365 egun inguru oraindik ere ikasten jarraitzeko, bai norbanako gisa, eta bai gizarte gisa, baina hemendik urtebetara Uztarriak eskaini didan leihotxo honetara gerturatzean gustura kontatuko nuke halabeharrez ikasitako jokaera on guztiak ohitura bilakatuak ditugula dagoeneko, eta horri esker gai izan garela gure ohituretara itzuli eta olatu arroxen hotsa maskor hutsetatik atera eta kaleetan entzuteko. ■

ZOZKETA!

IRABAZI BI LAGUNENTZAT LISBOARA BIDAIA

ADI EGON!

IRAILAREN 6TIK 30ERA UZTARRIA.EUS WEBGUNEAN

NORK PARTE HAR DEZAKE?

UZTARRIAKO EGUNGO BAZKIDEEK ETA IRAILAREN 30ERA
BITARTEAN BAZKIDE EGITEN DIRENEK

URRIAREN 15ETIK 17RA

HEGALDIAK:

URRIAREN 15EAN BILBO-LISBOA

URRIAREN 17AN LISBOA-BILBO

EGONALDIA:

BI GAU HOTEL MUNDIAL-EN:

OSTATUA ETA GOSARIA BARNE.

AIREPORTUTIK HOTELERA

BITARTEKO LEKUALDAKETAK BARNE.



Txakur sorgintzailea

Film ospetsuan zaldiaren belarrira xuxurlatzen zuen protagonistaren gisara, Josu Astigarraga 'Poti' -k (Eibar, Gipuzkoa, 1987) txakurrak sorgintzen ditu. Azpeitiko bizilagunak obediencia, bizitasuna, erreskateak eta hozkadak lantzen ditu haiekin.

Argazkiak eta testuak: **Kristina Fernandez.**



BIZITASUNA ETA OBEDIENTZIA

Txakur bat hezteko, animalia bera ebaluatu behar da lehenik: estimulazioei eta jolasari nola erantzuten dien ikusi, jabearekin jolasten duen aztertu...
 “Txakurrak fisikoki nekatu egin behar duela pentsatzen dute askok, baina mentalki ere nekatu behar du. Sari bidez ikasten du txakurrak obeditzen, eta horrela, burua nekarazten diogu, une oro zera pentsatu behar duelako: ‘Nola lor dezaket saria?’”. Bizitasuna lantzeko, berriz, gurpilez, pasabidez, saltoz, oztopoz... betetako zirkuitua osatu du Astigarragak.

LOREZAINZATIK TXAKURREN HEZIKETARA

Lorezaintza enpresa batean lan egiten zuen Josu Astigarraga *Potik*, eta orduko bi lankideek txakurrekin ibiltzeko afizioa zuten. Astigarragak betidanik izan ditu gustuko animaliak, txakurrak batik bat, eta lankide haiekin hasi zen txakurren heziketaren munduan murgiltzen. Hala, hainbat ikastaro egin zituen, eta Heldu Txakur Heziketa sortu zuen. Gipuzkoa osotik iristen zaizkio txakurrak Arroa Errekan (Zestoa) duen egoitzara.



ERASOAK SAIHESTUZ

Jabeak edo pertsonak babesten ere erakusten die Astigarragak txakurrei. Dena den, ez dira eraso errealak izaten lantzen dituztenak; irakatsitako seinaleei erantzuten die txakurrak. “Antzezlan moduko bat egiten dugu. Txakurra jabearekin dagoela, erasotzailea joaten zaio, baina erasorako seinalea egin arte txakurra ez da jabea babesten hasten”. Pertsonak babesteaz gain, txakurrak energia gastatzea eta nekatzea ere lortzen du ariketa horrekin.



GALDUTAKO PERTSONEN BILA

Erreskateetarako ere prestatzen ditu Astigarrak suhiltzaile batzuen txakurrak. Erreskateen arloan, bi atal daude: azalera handiena eta kolapsatutako egiturena. Hezitzailak azalera handien atala lantzen du, batik bat: “Izan ere, inguruan ez dugu kolapsatutako egiturarik. Saiatzen gara utzitako harrobiak edo baserriak aurkitzen, baina, orokorrean, sasiek, zuhaitzek eta belarrek hartuta egoten dira, eta, kasu horietan, ez dute balio izaten. Beraz, entrenamenduak azalera handietara bideratzen ditugu”.

TXAKURRAREKIN DANTZAN

Hozkadak egiten ere irakasten die Astigarragak txakurrei. Hozkada horiek, ordea, ez ditu lantzen pertsoneri eraso egiteko asmoarekin, energia gastatzeko eta lasaitzeko terapia gisa baliatzen du ariketa. “Txakurrek eta jabeek elkarrekin ondo pasatzea da helburua”. Haren arabera, ariketa horren bidez ez da borroka egiten txakurrarekin, dantza baizik. Horretarako, hozka non egin behar duen irakasten zaio animalari; hain zuzen ere, txakur hezitzaileak horretarako prestatutako jantzi berezia jantzen duen gorputz atalean egiten du hozka animaliak. “Hozkada bera ondo egin behar du, aho guztiarekin”.

HARREMAN BEREZIAK

Dolores eta *Nuk*, *Nuk* eta Dolores. Bata bestearen ondoan joan ohi dira beti. Horren berezia da bien arteko harremana, non txakurraren tatuajea egin baituen Doloresek besoa; Astigarragarengana eramaten du hark txakurra. “Oso babestua sentitzen naiz berarekin. Lehen gauez ibiltzeak errespetua ematen zidan, eta orain lasai joaten naiz bere alboan. Ni ez ezik, haurrak babesteko sena ere badu *Nukek*. Guraso batzuk errietan ikusiz gero, hor joaten da umea babestera. Etxe zaintzaile bikaina da”. Artzain txakur belgikar arrazakoa da *Nuk*, eta 4 urte ditu. ■■■



SOKA LUZEAN



MIEL A. ELUSTONDO

Hileta

A diskide kapitainaren amaren hileta herrian. Zahartzen ari gara. Seinale dugu. Garai batean gurasoak bezala, geu gara orain lagunen senideen hiletetara herriko parrokiara sartzen. Pozik sartzen ere, inoiz tenplura pozik sartuko ginela pentsatuko ez bagenuen ere. Adiskide kapitainaren ondoan egoteak urrea balio du. Eta, harako bidean, Betharramdarren parean, hiru emakumezko *txor-txor-txor* gurutzatu dituzu. Maskarak ez du musukoa ezagutu. Begiek bai, ordea. Stop. Geldi hor. "Aizu, aizu!". Ezagutu uste izan duzu. Naiararen ama. Hogeita hamabost urte ere joan dira ordutik, baina bart arratseko kontuak balira bezala hasi gara hizketan. "Irakaslea!". Titulu horrexekin joango gara zulora, lantegiari aspaldi utzi bagenion ere. Naiararen amarekin doanetako bat, berriz, Maiteren ama da. Neska argiak biak, Naiara eta Maite, zentzu handikoak, maitagarriak. Eta alabak zertan diren, eta beraien bizimodua egiten ari direla, bata han, bestea hemen, haurrik ere ekarri dutela mundura, eta beraiek, berriz, amak esan nahi dut, alargunduta daudela biak. Eta hau eta hori eta hura, eta elizara behar dudala nik. Pozik ni, adiskide kapitainaren amaren

hiletara pozik. Eta Plaza Txikitik Elizkalera, begi ezagun gehiago maskara eta musukoen gainean ageri. Hantxe bikiak. Eta hantxe, bikietako baten andrea, Nagore. "Arraioa, izarrak gurekin zaudek!". Naiararen eta Maiteren gelakidea. Haiek bezain argi, zentzu handiko eta maitagarria Nagore ere. Eta haiekin ere hitz, eta haiekin ere poz. Eta elizara. Txikitik hauuuuundi iruditzen zitzaigun parrokia, txiki zaigu orain. Eta hileta meza, eta besterik asmatu artean hileta mezak egiten segituko dute herrian. Horrelakorik niri ez, faborez. Aukeran nahiago adiskide kapitainaren formula: "Ni hiltzen naizenean, ez ehorts elizan. Baina ehorts nazazue, kupela tartean. Eta buruz barrikara, ahora zulora./Ni hiltzen naizenean, ez ehorts lurpean. Baina laga nazazue, belardi batean. Ta poxpoloak patrikan, papera aldean./Ni hilik egon ezkerro, ez egon trixterik. Baina dantza ezazue, pandero eta soinu. Eta musiko direnak, poltsikoan gutxi". Eta holaxe. Eta pozik. ■

**PLAZA TXIKITIK
ELIZKALERA, BEGI
EZAGUN GEHIAGO
MUSUKOEN GAINEAN
AGERI**

BOTEPRONTOAN



AINTZANE GARMENDIA

Altxorraren bila

A buztuaren mokoa ger-turatzarekin batera iritsi da batzuen oporraldia eta beste hainbaten lanerako sasoi. Ibilaldiak, otorduak, askotariko ekintzak eta bidaiak egiteko planak lau haizeetara zabaldu dira denbora tarte gutxian. Lan nekeza dugu, nonbait, gure udako antolaketa zirrargarriak ondokoari esan gabe gelditzea; zailegia antza, mugimendurik egin aurretik gure altxorraren mapa isilpean gordetzea.

Egia esan, badugu gizakiok neurri txikiagoan edo handiagoan errutinatik ateratzeko beharra, gure egunerokotasunean aldaketak txertatu eta ipar haizeak ontziko hautsak harrotzeko premia. Baina mudantza egiten den bakoitzean jakinarazi behar al zaie auzoko gutziei? Eta zer gertatzen da inoiz mudantzarik egingo ez duen adiskidearekin? Hark ez ote du, akaso, besteek bezala altxorraz gozatzeko aukerarik?

Ez gaitezen nahastu. Altxorrez inguratuta bizi gara, baina dugunaz ase ezinik. Gure burua marinel ontzat dugun arren, tripulazio osoaren eskubideei eta beharrei jaramonik egin gabe bizi gara, eta urruneko uharteei begira gabilza noraezean. Geroz eta bortitzagoak dira gure itsasontziak jasandako istripuak, geroz eta gogorragoak gure marinel kideei eginiko erasoak. Errespetu eta babes gaitezen elkar, edozein unetan zure, nire... gure txaluparen abordaia gerta daiteke eta. ■

UZTAILAREN 2TIK IRAILAREN 10ERA

2021 GUKA

ARGAZKI LEHIAKETA

B 𐌆 erto 𐌆 𐌆 𐌆 𐌆



Parte hartzeko, bidali zure datuak eta argazkia(k):

1. GUKA argazki lehiaketaren webguneko txokora datuak eta argazkia(k) zuzenean igota
2. Posta elektronikoz 'lehiaketak@ukt.eus' helbidera idatzita.
3. Whatsapp bidez, 688 84 63 51 zenbakira idatzita

SARIAK

1. EPAIMAHAIAREN SARIA: XOXOTEKO ATERPETXEAN LAU LAGUNENTZAKO EGONALDIA (GAU BAT) MANTENU-ERDIAN (AFARIA ETA GOSARIA).
2. IKUSLEEN SARIA: TALAI BERRI TXAKOLINDEGIAN BI LAGUNENTZAKO UPATEGIRA BISITA, HAMAIKETAKOA ETA PARE BAT BOTILA
3. BOTOA EMATEN DUTEN ERABILTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA: BI LAGUNENTZAT PADDLE SURF IBILBIDEA ORIA IBAIAN

AZPEITIAK

bat gehiago



**BATU UZTARRIAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41